



EUSKARAREN EREDUAK



FELIX ZUBIAGA

EUSKARAREN EREDUAK

FELIX ZUBIAGA

III

AURKIBIDEA

SARRERA.....	7
I. EUSKARA-EREDUEN BILA.....	10
1.1. Oroitzapenetan.....	10
1.2. Elkarteko oroitza.....	11
1.3. Euskararen oroitza	12
1.4. Mito-azterketan.....	13
1.5. Erritoen araua eta hitzaren magia.....	14
1.6. Arketipo edo eredu zaharrak.....	16
1.7. Jainkozko arketipoak eta lehen otoi egiturak.....	17
1.8. Giza arketipoak eta lehen deiadar egiturak.....	18
1.9. Toki sakratuen izenak eta atzizki-aurrizkiak.....	19
1.10. Sinonimoen lekukotasuna.....	22
II. UNE ETA ALDIEN EUSKARA EREDUAK.....	25
2.1. Une eta mendeen izenak AN jainkoaren eredura.....	26
2.2. Toki eta adinen izenak UTU jainkoaren eredura.....	28
2.3. Otu eta orduen izenak RA jainkoaren eredura.....	29
2.4. Leku eta aldien izenak ILU jainkoaren eredura.....	31
2.5. Gune eta garaien izenak KA giza eredura.....	32
2.6. Behe eta epeen izenak BA giza eredura.....	33
2.7. Espazio ta astien izenak SHE giza eredura.....	35
III. SINBOLO-RITOAK ARKETIPOEN ARABERA.....	37
3.1. Sinboloak eta ritoak AN arketipoaren arabera.....	38
3.2. Sinboloak eta ritoak UTU arketipoaren arabera.....	40
3.3. Sinboloak eta ritoak RA arketipoaren arabera.....	42
3.4. Sinboloak eta ritoak ILU arketipoaren arabera.....	44
3.5. Sinboloak eta ritoak KA arketipoaren arabera.....	46
3.6. Sinboloak eta ritoak BA arketipoaren arabera.....	49
3.7. Sinboloak eta ritoak SHE arketipoaren arabera.....	51

© Felix Zubiaga Legarreta
Azaleko diseinua: Felix Zubiaga Legarreta
Azaleko irudia: Felix Zubiaga Legarreta

ISBN: 84-931426-0-3
Legezko Gordailua: BI-834-00
Aita Pasiotarrak, San Migel auzoa 2
Tel.: 94 673 04 86
48290 EUBA-ZORNOTZA (Bizkaia)
Tailer Grafikoak: ZURE S.A.

IV

IV. EUSKAL ETNOGRAFIA ARKETIPOEN ARAUZ.....	54
4.1. Euskal etnografia AN arketipoaren arabera.....	55
4.2. Euskal etnografia UTU arketipoaren arabera.....	60
4.3. Euskal etnografia RA arketipoaren arabera.....	65
4.4. Euskal etnografia ILU arketipoaren arabera.....	68
4.5. Euskal etnografia KA arketipoaren arabera.....	70
4.6. Euskal etnografia BA arketipoaren arabera.....	72
4.7. Euskal etnografia SHE arketipoaren arabera.....	74
V. EUSKARA ETA JAINKO OROITZA	79
5.1. Euskara eta Jainko oroitza AN ereduaren arabera.....	80
5.2. Euskara eta Jainko oroitza UTU ereduaren arabera.....	84
5.3. Euskara eta Jainko oroitza RA ereduaren arabera.....	85
5.4. Euskara eta Jainko oroitza ILU ereduaren arabera.....	88
5.5. Euskara eta Jainko oroitza KA ereduaren arabera.....	90
5.6. Euskara eta Jainko oroitza BA ereduaren arabera.....	92
5.6. Euskara eta Jainko oroitza SHE ereduaren arabera.....	94
VI. EUSKARAREN JAKITEA EREDUEN ARABERA.....	97
6.1. Euskaren jakinduria AN arketipoaren arabera.....	98
6.2. Euskaren jakinduria UTU arketipoaren arabera.....	101
6.3. Euskaren jakinduria RA arketipoaren arabera.....	103
6.4. Euskaren jakinduria ILU arketipoaren arabera.....	106
6.5. Euskaren jakinduria KA arketipoaren arabera.....	107
6.6. Euskaren jakinduria BA arketipoaren arabera.....	109
6.7. Euskaren jakinduria SHE arketipoaren arabera.....	111
VII. EUSKAL GRAMATIKA ARKETIPOEN ARAUZ.....	114
7.1. Euskal gramatika AN arketipoaren arabera.....	115
7.2. Euskal gramatika UTU arketipoaren arabera.....	118
7.3. Euskal gramatika RA arketipoaren arabera.....	121
7.4. Euskal gramatika ILU arketipoaren arabera.....	123

V

7.5. Euskal gramatika KA arketipoaren arabera.....	125
7.6. Euskal gramatika BA arketipoaren arabera.....	128
7.7. Euskal gramatika SHE arketipoaren arabera.....	130
VIII. TOKIZENAK EREDUEN ARAUZ.....	134
8.1. Tokizenak AN eredutara.....	134
8.2. Tokizenak UTU eredutara.....	137
8.3. Tokizenak RA eredutara.....	143
8.4. Tokizenak ILU eredutara.....	145
8.5. Tokizenak KA eredutara.....	146
8.6. Tokizenak BA eredutara.....	151
8.6. Tokizenak SHA eredutara.....	146
IX. SINOMIA ARKETIPOEN ARABERA.....	163
9.1.1. ANen sinonimoak beste jainko-ereduenekin.....	164
9.1.2. UTUren sinonimoak beste jainko-ereduenekin.....	170
9.1.3. RAn sinonimoak beste jainko-ereduenekin.....	177
9.1.4. ILUren sinonimoak beste jainko-ereduenekin.....	182
9.2.5. KAn sinonimoak jainko sinonimoekin.....	187
9.2.6. BAn sinonimoak jainko sinonimoekin.....	194
9.2.7. SHEren sinonimoak jainko sinonimoekin.....	204
9.3.1. Giza ereduko sinonimoak elkarren artean.....	212
ONDORENAK	219

SARRERA

Sigla batzuren irakurketa:

(s) sumeriera, (a) akadiera, (u) ugaritikoa, (e) egipziera, (ara) arameera, (h) hebraiera, (arb) arabea, (g) grekoa, (l) latina, (f) frantsesa, (al) alemana, (i) inglesa, (it) italianoa, (ca) katalana, (ga) gailegoa.

Edozein artelanak eredia behar du aurretiaz, haren irudira lana asmatu eta desarroilatu ahal izateko. Hizkuntzak, Sapi-en gardiz, gizakiak eguno sortu duen artelanik bikainena izanik, eredu bikainagoa beharko zuan, hitzaren soinuak haren durundira-edo ahozkatzekotan. Sumeriako eta Egip-toko apaizek jainkoen izenpetan zerrendatzen zuten jakin-duria guztia, izendegietatik hasi eta gramatikaraino. Giza-kiak, horrela, jainkoegazko harremanetan ez zuan ostopo-rik izango, ez kosmoak ondamendiko iraulkarik egingo. Egoki zan hatarako, lehen otoitzak, *oraciones*, alegia, jainko-en goralpenezkoak izatea, erresuak eskabidea erraztu zezan eta ereguak, halaber, erregua.

Euskara den hizkuntza zaharraz, eredu zaharrak izan zitu-an, arketipoak arean. Nondik idoro euskarren ereduok? Sinboloei deitu, sinboloak bai ziran jakinduria zaharrak kosmo birako ikusgarrietan oratzen zuten dinamika: zerua, zeruak bihaltzen zuen eguzkia; eguzkiak, lurrean bizia sortzeko, bihaltzen zituen ura, beroa eta eguratsa; lurreko izakietan, barriz, jainko txiki sentitzen zen gizakia bera eta bere osotasuna biribiltzen zuten zatikiak: gorputzaz, ari-maz eta jainkoengandik lortu izate santuaz kosmoko bizia inguratzen zuela.

Neolitos aldiko gizakiari *homo symbolicus* deitzen zaio haga-tik, hau da, sinboloen dinamikan gauzak ulertzen eta azal-tzen zituena, sinboloak bai-ziren jainko handi eta jainko txikien ezaugarriak.

Horretan da, beraz, sinboloen zeregina: goia beheaz, zerua lurraz, gizakia jainkoaz orapiltzen duen dinamika, ots, giza-kiari kosmo bereko dantzan mugiarazten dion musika, iru-

dia eta mezu-ordezkatzailea. Ala “signifikanteak” ordezkatzen ote du soilik “signifikadoa”, hau da, adierazleak adierazia? Agian gaurko gizakiak sor lezaken hizkuntza aseptiko batetan bai, ez ostera, jainkoei lotu zegoen ohiko gizakiarenak. Halako adierazlea sinbolo hila izango litzateke berez, adieraziak jantzi artean, baina euskara bezalako hizkuntza zaharrak, bizitik bizira, sinbolo bizia hartu bide zuan adierazletzat. Abotz adierazle horrek ez zuan galduko soinuak, nahiz soinu ahozkatuak aldakor modulutzen joango ziren, adierazi berriei bide eginala. *UTU*, sumerieraz jainko *iduzkia* da, adibidez. *Otoz-otoan*, bera *aditu* orduko, giza jainkozaleari *otoi* egitea *otutzen* zitzaion. Lanean-*edo* amorratzen zeneko, *jo!* esateko *oitura zuan*, *ots!* *ojukatzen* zuan ekintza latzean, *otx!* saminean, *otian!* gurarizko *ojuetan*, *otoi!* erreguan, *UTU* jainkoa zerabilela *total otozoztetan*, *UTUren itxura itxuan* bereganatzen zuela *duztietan*. *UTU* bera zuan gainera *joan-etorrietako eduetariko* bat: goizoro, *itzulian*, *tontor ostetik itoituz*, *otara* igon=*tollere(l)* eta haren *su thol-sak utultzen* duenetan edo *otatik iduliz*, iluntzero *itxosoan ittotzean*, *UTUk* egiten duena *UTUren otsekin* adierazten zuan giza jainkozaleak. Areago, *toz ots* egingo zion haren *doaia* nahi zuen maitaleak=*dôd(h)*, *to/tori=toma* inoan *doa itzultzen* zion emaleak, sinboloa ritoaz *o(h)itu* egiten delako eta euskal-duna *UTU* arketipoaz, *ots*, *edua udukuz*, hizkuntza *adituaren oitura sortu* zuelako. Beraz, euskarak *UTU* du sinbolo bizietariko bat eta hori, kontsonanteetariko *tau soila* baino, zerbait gehiago izatea da.

Mito-azterketaren metodoaz baliaturik, euskal ereduen bila, Uliseren bidaia egin behar da, baina atzekoz aurrera, Sartaldetik Sortalde Hurbilera, hain zuzen, arik eta behinola *iduzki-giroko* kulturaren pelota handik hona jaurti zigutenei (*h)utsik* egin gabe *itzultzeraino*. Kultura ekarri zigun un-

tzi berak eramango gaitu agian, edo eta hango abotsak hemen duten oihartzuna aztertuko, ea *Otamendi/Otoiomendi*, edo *Udalamendi*, *Tolomendi*, *Tuturmendi* etab., *UTU* jainkoaren santutegi edo goizalde-arratsaldeko *otoitzaren toki* edo begira-*toki* berezi diren jakiteko, ea euskaraginen egunero darabilzkgun otsak ze jainko edo giza arketipo diren argitzearren, bada, euskararen ereduak bilatzen dituenak asaben jainko zaharrekin *topo* egingo du ezbaigabe, hako F. M. Müllerren arabera, erleginoen historia asabek jainkoekin harremateko erabili ohi zuten hizkuntzen historia baino ez bai-da.

Saio honetan euskara bera izango dugu lekuko bakarra. Norbaitek hemen esaneko askoren iturburua edo zioak ikus nahi balitu, *Vascuence y mitoanálisis* tesian aurkituko du frogarririk. Izan ere, lantxo hau gehein bat handik jasotako laburpenez euskaldun irakurleentzat antolatua dago.

Anartean, ikustea baino ez dago, “*euskararen ereduak*”, Ur uriko oinarriak bezala, Zazpi Jakintsuek aztertutak ez ote diren eta, Jakinduriaren Eskola bezala, zazpi zutaben gainean eraikia ez ote dagoen.

I. EUSKARA-EREDUEN BILA

1) Oroitzapenetan

“Oroi zaitetz” esan ohi da eta gutxirenak dira pitagorikoen aholkua jarraitzen dutenak, arimak bere sorrera gogoratu behar bai-du, etorkizuneko inpernu-zirimolan berriro ez erortzekotan eta, lehenak gogora eramanez oster, gizaki hilezkor eta jainkozko gizaki izatera heldu ahal izateko. Bere baitan gogobilduaren bilduz, norbere sorreraino heldu zeitekena, entzunaren puruz jakitun egiten zena baino bikainagotzat jotzen zuten platonikoek ere. Oroimenak jatorrizko nortasuna bilatzen du. Asabek, uda-neguko iduzki-mugetan urteoro jaiak ospatzean, aintzinateko jainkoek herria sortu eta herriaren alde eginiko ekintzak gogoratzen zituzten eta hasierako aldiak eguneko garaiez orekaturik, gerokoei gogoz erantzun ahal izateko, hasierako pozkarioz bihotz-berotzen ziran.

Euskara egiten ez duenak euskara aztu egiten du, errezatzen ez duenak Aitagurea aztu darian bezala eta alzheimerduna, berriz, bere izena aztutzeraino sorgortzen da. Ahantzia gogoaren antzi bihurtzen da maiz eta sikologoek “erruzko oroitzen galpena” salatzen dute gizakiagan eta ezagunak ditugu euskara ahantzia berreuskalduntzen ari direnen artekoen jarrera ezberdinak. Horretan sikoloek eta soziologoek ba dute nahiko zeresan euskaldun askok, ez denak, euskara zaintzen gizaldietan eraldi izan duten arimaz ezeze odolaz. Ba zekiten, agian, lehenarekin oroipen-zubia egiteko bide egokiena euskara zena eta euskara galduez gero, norabidea erratzuz, inpernu-zirimoletan gal zitezkeela, munduan hilik bizi diren zeinbat herri bezala.

2. Elkarteko oroitza

Bada nonbait sikologoek *memoria colectiva* deitzen duten elkarteko oroitza. Elkarte ohargabea, *incosciente colectivo* delakoa omen du gordailu, herriaren soina nonbait. Izan ere, sinboloaren gunea gorputza da, izadiaren partekide eta izakietan bizikide den aldetik. Gorputza gauaren lotatik eguneko argitasunera jagiten denero, eguzkiaren araura mugitzen da eta biriak auspo bihurtzean, arnasa eguratsaz nasten eta beroa sortzen du eta bihotzkeraren taupadak mundu ezean murgiltzean, kosmoan kosmo txiki egiten duelakoa du. Kosmoaren partekide izatetik daki jainkoen sorkari dena, goiko mundua beragan disdiratzen dakusalako. Ametsetatik esnatzerakoan, lotatik itxartzerakoan, giza-kiak askatasunez egosten ditu gogoaren antsiak eta ume-tzaroko irudipen oroigarrien gaia, audiobisualean bezala, espirituzko berbaz argitzen du: itxartu egiten da, hitza hartzen du, materiazko mundutik espirituzkora dator, ohargabe egotetik ohartzera, ain zuzen.

Sinboloak gau giroan amesten omen dira C.G. Jung sikologistararen ustez, eta eurretan hizkuntzen eredu diren arketipoak. Antxinako oroigarriak arima astintzen dute eta irudiaren eta sinboloaren arteko logikak hizkuntza taxutzen du, jainkozko sekreturen bat mezutzen duelarik. Jadanik hizkuntza mitoak kontatzeko lain da eta herriek mitoen munduan, sorgu bereko sorkariak bezala, anaiago sentitzen dira bata besteekin.

Orain, bada, zein herrik du munduan bere elkarte ohargabea itxartu dezaken txilunik? Lege zaharra hizkuntza zahar-rean bizi duten herriren batek, ain zuzen. Euskaldunok euskara dugu. Euskarak, ausaz, euskarak esna dezake euskaldunon elkarteko ohargabea eta ziur beste hainbat loti.

1.3. *Euskararen oroitzak*

Sikologoen azalpenak eta arketipoen aipamenak euskararen egiturekin bat datozen jakitea ardurazkoa izango da, ezbaigabe, euskararen lekukotasuna baliagarritzat eman ahal izateko. Jakina da liburu-kulturako ez diren hizkuntzak, idazkiaren pentsudan dagozan besteak baino, ahalegin handiagoa egin izan dutela oroimena zorrozten eta lehengo ohiturak eta atsotitzak finkatzen. Elkarre ohargabeak, bestalde, ez du mintso berezirik, euskarak bai, ostera, euskara ez bada ugarrak janeko arrabita, euskera mintso bizia da. Zer dino euskarak, sinistu diezaiozun?

“Sinistu hizkuntzari” dino F. M. Müller, erligioen azterleak. Ez dago bera baino sinistagarriago den lekukorik, ez dokumentorik. Aldi beretsuko Unamuno goiztarra ere hizkuntzen barne-historiaz mintso zan, historia konponduarena baino edukin zihurragoa ikusten zuan euskara bezalako hizkuntzetan. Euskara Euskal Herriko prehistoriatzat zeukan eta areago uskaldunen jatorria azal zezaken paleontologia bakartzat. Baina zer esan lezake euskarak euskaldungoaz, bere nortasunaz ezer esateko ezbalitz? Konta diezaigula euskarak bere kondaira eta euskaldunok geure historia kontatu ahal izango dugu sortzetik honaino. Esan diezaigula, berere, nortzu diren bere gurasoak eta guk geure lehen aita-amen izenak jakingo ditugu. Norik galdetu behar dio euskarari? Etnologoei ala hizkuntzalariei? Euskal etnografia euskaldungoaren ohiturez eta erritoez badihardu eta euskara haien azalpenik emateko balitz, horrek polo biren arteko argitasuna sor lezake. Ahaleginik egin da galdaketa honetan XVI gizalditik hona bederen, baina gaurko hizkuntzalariek, aurrekoen okerretan jausi-bildurrak bailegozan, isilik dagoz. Euskaldunok berenez, ain etimozale garenagatik-edo,

tabu dugu etimotan hastea, ia Euskara amari nortasunaz galdetzen ere bildur garela.

Euskara, nahiz ez den arrabita baztertua, arrabita bezala, bere arauak izango ditu, egoki joaz, argiro soinutu ahal dezan. Galdetu, beraz, euskarari bera asmatu zuen gizakiaren arabera eta euskarak aintxinako senaz erantzungo du orduan. Hitzaren adierazle/adierazi arabera itaunduez gero, erantzun igarrak emango lituzke, hizkuntza kulturatik banandurik bailegon, hizkuntzak, hizkerak eta hitzunen gizar-teak elkarrekin zerikusirik ezpailuen, baina sinbolizatzaile/sinbolizatu eratara galdetuz gero, euskarak gizarte biziak sortu zuen umatokiraino doan sorgunea erakutsiko digu bizi-bizian.

4) *Mito-azterketan*

Mitoak herrien historia sakratua eta gizarteko bizkar hezurra dira. Euskaldunok, esate baterako, lege zaharreko ohi-tura asko gordetzen ditugu, nahiz kristautuez gero, Jainko-gizakien arteko auzia Kristogan sakramendu egina ezagutzen duten. Mitoek giza gogoaren berezko azalpena eta geroko sorkuntzaren sustraia dira. Mitoek argi adierazten dute gizakiak osotasuna idoro eta bere jomuga bilatzeko duen burubidea. Gizarte-zientziek hiru pausotan azaltzen dute *homo religiosus*=gizaki jainkozaleak izadia eta jainko-mundua bizi duen erabagia: sinboloaren esperientzia, mitoaren kondaira eta erritoaren ospakisuna. Sinboloak gorputz eta arima inguruneke irudi eta irudipenetan murgiltzen du unibertsoaren erdian, haren eguratsetik biriak arnasetuz, espiritu-sentira esnatzen duela. Mitoa sinboloari loturik doa eta azalpenerako berba egokia asmatuala, gizaki lehenak jainkoen eta gizakien hasierako kondaira iragarten du. Erritoak mitoaren kondaira gogoan bildu eta, eguneko arazo-

ak alde batera eginik, jainkoen ekintza salbagarriak jai-gi-roan ospatzen eta gozatzen ditu. Horrela, hasierako bizi-sorgura itzuliz, antxinako senak arrazoi hutsezko burubide-ari turrut egiten dio, goiarnasezko olerkiak hitz lauari beza-la. Guzti hori gizakiaren haragiko gogoa gizakia jainkozale-aren espirituari itunbenez lotua dagolako seinalea omen da. Ardurazkoak dira mitoaren egiturak, batez ere, euren kultu-ra idazkizunetan oinarritzen ez duten herrirentzat. Mitoa ahozko kondaira bai-da, esakera berezi eta imintziaz giro-tzen den esankizuna. Elkartearen gogoak ahoz ebaki eta ozentzen ditu gizakiaren sakonak ohitura berezien orekan. Jainkoen jaiotza eta herriaren sorrera du kontagai eta hur-runeko oroimena berritzen dihardu. Ez doa, joan, berriro humetzarora, lehena oroituz, erritoen eraginez, geroko her-rigintza bermatzera baino. Horrela, burutzen bai-da, giza jainkozalearen asmoa eta ariketa.

Mitokritika, edo giza zientziak mitoez aztertzeke jokera, gero eta gehiago zabaltzen doa. Kontagai dena linguistikak aztertzen du, izadi eta gizadiaren arteko zioak soziologiak, etnologiak, kultura zaleak eta erlegioen historigileak eta sin-boloa dena, berriz, sikologoek, filosofoek eta antropolo-goek. Teologoentzat mitoetan dagoen Jainko-aztarrena gel-ditzen da.

Noren arduran gelditzen da euskara bezalako hizkuntza zahar baten egiturak aztertzea? Hizkuntzalariek mito azter-ketan hasi behar dute, euskararen ereduak zeintzu diren jakin ahal izatekotan.

1.5. Erritoen araua eta hitzaren magia

Erritoak gizakiaren eta jainkoen arteko harremanen araudia antolatzen du. Erritoak agintzen du edozein liturgizunean Jainkoak eta gizakiak non kokatu behar duten. Ardurazkoa

da benetan jainkoek gurtzeko jakinduria hau, jainkoekiko hizketa="oratione"(l) eredu berean zehatz taxutua izan delako: lehenengo jainko arketipoak, gero giza arketipoak. Sumerian *me* deitzen ziran jainkoen erabagiak. Zeregin guz-tietako eredu ziran: kultoa, erregetza, gizartea, hizkuntza, jakintza, musika, etab. Sumeriako hizkeldi biak *eme-ku*, *eme-sal* sistemakoak ziran, bata ofiziala, bestea salmoetakoa. Eginkizunak erabagien eratarata eginez gero, *meak* indarrean egozen, eratarata egin ezik, hutsean gelditzen ziran. Hitzak ere taxuketa berezia behar zuen eduki, hotsak inoena bene-tan egizta zezan eta oker esanak hutsean edo, bildurgarria-goia zitekena, aurka erabagi ez zezan.

Sumeriako eta Egiptoko apaizek izen zerrenda bidez taxu-tzen zituzten orduko jakinduria guztia, toponimiatik hasi eta gramatikalaino. Jainko nagusiaren izenak burutzen ditu onomastikak deitu-zerrendak. Jarraian doaz gainerako jain-koen izenak: haren emaztearena, seme-alabenak, sendikoe-nak, etxe-koenak eta azkenean, morroi-mirabeenak.

Hatitarren artean erregearen eta menpekoen arteko begiru-nez taxutzen ziran jainkoen eta gizakien arteko harrema-nak. Hori zan jainkoei sor-zuzenbidea, hori jainkoegazko begirunea eta eraspena. Orain, bada, jainko nagusien izenak beste jainko-mailako edo giza mailako arketipoez jostean, non kokatu behar ziran batak eta besteak?

Egiptoko mitoak dinonez, Toth jainkoak asmatu zuen hiz-kuntza jainko eta gizakien arteko harremanak erraztekotan. Hagatik hitza magiazkoa zan bai Sumerian, Babilonian eta Egipton, esanaz inoena erabagitzen bai-zuan, jainko arke-tipoez jositako ahala zuelako beregan. Esaneko hitzak balo-re totala eukan euskaldunen artean, kontu hagatik esankizu-na zehatz ala oker dagoen, kosmoko ordena apurtu ez zezan edo hako sorgin hasiberriari "hodei guztien gainetik eta sasi

guztien azpiritik” esateagaitik gertatua gerta ez zezaion.

1.6. Arketipo edo eredu zabarrak

Hoiek dira elkarte ohargabearen zeru-ginga makotzen duten ereduak, hoiek gizakien bateratasuna, iraupena eta sormena disdiratzen dutenak. Hoiek dira gizakiari, gorputz-arimen pausora, unibertsoan norabidea adierazten diotenak, C.G. Jung sikologistaren arabera. Ardurazkoa da gizakiaren adimeneko argibideok zeintzu diren jakitea. Sortale Hubileko mitoetan aurkitzen dira euren izenak *AN*, *UTU*, *RA*, *ILU* jainko monosilaboen izenak, alegia. Ba al dute jainkook *ainanino*, *idittu*, *ersuge* edo *lilitxo* bezalako jeinuekin zerikusirik? “Hutsa da ibaibidea, sorgua non den ez dakienarentzat”, beraz sorgura jo behar da. Esan diezaigula, bestela, ze jainkoez eta ze aroez, zaroez edo azaroez berba egiten diguten *Ononzaro*, *Subilaro*, *Oronzaro* eta *Olentzaro* negu-muga-ko ospakizun eta izen zaharrok.

Bi eratako arketipoak bereizten ditu C.G. Jung sikologistak: norbere arketipoak eta jainkozkoak. Norbere arketipoak gizakiaren nortasuna osatzen dute: ni eta ohargabea, untzia itxasoan bezala. Halako bakardadeak gora begira, trazendenziari adi, jartzen omen du gizakia eta jainkozko arketipoak begistatzen omen ditu izadiaren barnan. Hantxe eguneroko argia eta beroa prestatzen dion zeruan. Euren babesean sentitzen da norbait. Jainkoek, sugarrak bezala, dantzan dagite unibertsoaren erdian, eta halaber gizakiaren gorputz-arimen espirituagan, mitoek aldarrikatzen duten bezala. Ezin daiteke sinistu jainkoengan gizakirik gabe, edo bestelaz, ezin daiteke sinistu gizakiagan jainkorik gabe.

Norbere arketipoei *mito bizia* deitzen dio hako autoreak. Mito bizia antxinako historiaren mintso berria da, jomuga orokorraren hizkuntza eta mezua duena, jainkozko mitoen

mintso berria, jomuga eta osapen doia, gizaki eta jainkoen arteko atezuan nor bakoitza jainko-zorian jartzen duena nor bakoitzaren bizi-santzueta eta elkarte bakoitzaren esperimentzian.

1.7. Jainkozko arketipoak eta lehen otoi egiturak

Sikologistek ez dinoe zeintzu ez zenbat diren giza unibersoko arketipoak, baina mitoek jainko nagusien oinarritzko izenak aipatzen dituzte, monosilabodun diren hoiek berere eta idazkietan konsonante berezi agertzen direnak. Hoiek dira jainko nausien izenak, beraz, jainko arketipoak. Hoiek, Sumeriako edo Egiptoko apaizek euren onomastiken zerrenda buruan jartzen zituztenak, kosmoko jakinduria gizarte asmoekin bat etor zedin. Harrian, toska taulatan eta papiroetan idazten zuten, ahoz esaten zena inork haztu ez zezan. Sumeriako erresuma desagertu eta milaka urtetan geroago, haren jainkoen izendegiak eta erritoak indarrean jarraitzen zuten Sortalde Hurbileko eta Anatoliako liturgizunetan, latinak Europako eskoletan iraun izan zuen lez.

AN/ANU=zeru zan Sumerian jainkoen buru, *UTU*=*iduzki* azken dela, *RA*=*iruzki* jainkoa *errege* Egipton, *ILU/EL*=*alguztidun*, ots, jainko *alaena*=*alyn(u)* Ugariten. Lau monosilabo, lau arketipo, idazkietan gero lau konsonante egokitu direnak, bada, Sortaldeko idazkietan bokala konsonanteen partekide baizik ez zan zabaletik estura edo errepikadura. Konsonanteok jeroglifiko izatetik ideograma egokitu ziran Egipton. *RA*, esate baterako, *O* eguzki itxura zan jeroglifikoetan, gero alfabetoan *P* gelditu zena, *UTU*, \oplus eguzki gurutzatua zan feniziar alfabetoan, gero, borobila galdurik, *T* irudiko gurutze soila gelditu dena. Lau arketipo konsonanteok euren alofonoekin doble eta areagotu egiten dira, *N* eta *D*-ren zapaikoak eta haginartekoak direla gehigarri.

Ba dakizkigu Sortalde Hurbileko mitoetan agertzen diren jainko guren on izenak. Monosilaboak, ots, konsonante bakarrekokoak eta mitoetan zaharren eta goren aipatuak direna. Euskarak ba ote du izenon oroitzik?

Antxinako aldiei, hau da, jainkoen jaiotze garaiari ANUM. ZARO(s) = "Anuren Sorkuntza" deitzen zaio sumerieraz. Euskarak, oster, *Ononzaro*, *Subilaro*, *Oronzaro* eta *Olenzaro* laukoa gogoratzen du halako ospakizunean. Ain zuzen ere, aipatu lau jainko nausien arketipoez osaturiko izenak dira, *Subilaro* dd > s ahozkeretik sortua denez gero. Jainkoei zuzendu lehen deiak/otoiak horrexek dira hizkuntzan gelditu diren oihuzkoak. (Ikus eskema 1°)

1.8. Giza arketipoak eta lehen deiadar egiturak

Giza arketipoak gizakia osatzen dute KA = kaizua (korpitza), beso goratuen W itxura jesarria zeukan Egiptoko geroglifikoetan, feniziar konsonateetan, berriz, K zutitua zan. BA = baita (ene ba!), giza burudun txoriak = AVE ordezkatzun zuen Egiptoko jeroglifikoetan, gorputza utzirik ere, bere tokira aidean hegan egiteko gei bailitzan. Feniziako B egiturak ausaz hego-bikoitzduna gogarazten digu. Aurreko bien batzea SHE = iza(n) = esse = ser adierazteko arketipoa da, Sumeriako *sagaratuen* einen agertzen dena. Beste hiru arketipo-konsonateok, euren alofono eta gainerako ahozkerekin, ezagutzen dugun alfabetoa osatzen dute.

Arketipook zergatik izan behar zuten zazpikun eta ez hogetabi edo konsonanteek diren bestetsu? Zazpiak apurtu ezinako sinboloa duelako bere baitan. Musikak ere zazpi noten egituran asmatzen ditu armonikide guztiak. Eta zergatik izan behar zuten lau jainkozko eta hiru gizatasunezko arketipo? Gizakia, nonbait, nahiko osatu ikusten zuan burua bere arpegikera hirukoitzan: gorputzaz, baitaz, eta jainko-

Eskema 1n.: OIHUZKOAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
ene	otoi	ra/rau	(h)el	balinba	caramba	ja/jai
enei	ut	arren	olé/iole	ba/vaya	cáspita	eia
iño	txut/ixo	arrano	(h)il	vae(l)	carajo	txist/chito
amen	et/eit	arraio	ola	ave	agur	salve
oino	ujui/jo	urra	ala(h)	bua	coño	shalom
ainü	otian	rayos	alajina	eup	quia	asa/aiz
enene	utinam(l)	arre	ale	hip(i)	gel	esti
añó	ojalá	rediez	ele	uf/huf	kontuz	xapi/zape

engandik jaritxi txit duin izateaz. Giza arketipoez egin oihuzko-ak ez dute, berez, otoitz edukirik, gizarte harremanetarakoak bai-dira. Gizakiak sortzetik eta, areago sagaratzetik, zuen santutasunari esker, ba zeukan bere arketipoak jainkozkoekin hitzetan = otoitzetan nastatzeko esku-biderik eta arketipoen elkartze hori zan, hain zuzen, jainkoekin egin zuen itun eta ezkontza-agiria.

Jadanik, hizkuntza egiturei itaundu dieguna bera toki sagaratuen izenei, santutegiei, galdetzea baino ez dugu. Mendiak ziran berezko jainko-temploak, bada, geroagoko *zigurata* eta *piramidea*, mendien itxurara eraiki, jainkoen egonleku eta haienganako eskailerak bai-ziran. Ba ete dago Euskal Herrian edo haren inguruan arketipoon izeneko santutegirik. Mendiei galdetuko zaie.

1.9. Toki sakratuen izenak eta atzizki-aurrizkiak

Tokizenak hurbileko hotsak baino areago dira urrunetiko oihartzun. Uriolen mitoaz gero, gizakiak eta herriak, amorrariak bezala, goiko sorguen irrikaz, mendien, ots, jainko tokien misteriora hurbiltzen ziran, "alperrikoa bai-da ibai-

bidea, sorgua non den ez dakian gizakiarentzat”. Mendi gu-
renei, ugoldean burua gorde edo ugolde orokorretik burua
jaso ahal izan zutenei “oinarrizko mendiak=montes pri-
mordiales” deitzen zaie, haien oinarrietan sostengatzen bai-
zan lurra, hoiien gainetan kokatzen bai ziran jainkoen oi-
nak, hoiien ostetik itoitzen edo ittotzen iduzkia.

AN/ANU arketipoa agertzen da jainko guren, euskaldunek
haren izenez ezagutzen bai-dute *Ainamendi* edo *Ainomendi*,
Unamendi eta bai agian *Onaendi/Imendia/Amunda* hotse-
tan. Euskaldunentzat *Anuren* mendiak ziran, *An*=zerua edo
aino=“eguzki-sartzea” hurretik ikutzen eta ikusten dutenak.
Erromanikar erderek izenokin *Mointaine/Montaigne/ Mon-
tini/Montaño/Montaña/Montiano/Montón* egitean, trukatu
egin du euskerazko izenen funtsa, *monte* berari lehentasuna
eman eta NOR zen *-aine, -agne/-ain, -ana/-ano, -an, -en, -in,*
-ona jainko arketipoa beste zer baten erlatibotzat edo beste
kasotzat darabilelarik. Aurrizkietan, berriz *ana-, an-, en-, in-*
eta eurekiko konposatuak euskaran, grekoan, latinean eta
bere alabengan ezagunak dira. (Ikus eskema 2^o)

UTU erako *Otoio-mendi/Otamendi* izenak erromanikoe-
Montoto edo *Montaud* egiten dituzte eta *Otsomendi/Otxa-
mendi* berriz, zapaikotuak *Montecha, Montesso* eginaz. *Ixua-
mendi/Itxumendi/Sumedi/Somonte/Osmond* egiturak ere
Menditxu/Monteso egiten dute aurrizkia atzizki itzulikatuz
gero. Horrela arketipooz, euskarak *semetto/semetxo/semeso*
ohi bezala, *-tio/-tia > -cha/-cho, -sa/-so, -za/-zo* euren gramati-
ka egiturak idoro zituzten latinak eta bere alabek. Aurrizki
eta preposizioetan, berriz, *-ato, -at, -ad-, de-, so-, su-, di-* eta
eurekiko konposatuak. (Ikus eskema 3^o)

RA=iruzki arketipoak *Ramonte/Erremendi/Aramendi/Ar-
mentia/Armendi/Oromendi/Oriamendi/Oorroamendi/Ira-
mendi/Iremendi* eratako izenak ematen dizkigu aurrizki de-

Eskema 2n.: AURRIZKI-PREPOSIZIOAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
ana-	ato-	arra-	lo-	be-/fe-	ek-	etxa-
an-	at-	re-	lu-	ber-/per-	co-	itxa-
ante-	ad-/de-	era-	el-	para-	com-	eis-
amfi-	so-	er-	ala-	pre-	kata-	ex-
en-/em-	sub-	ira-	la-	pro-	kara-	es-
in-/im-	su-			upa-	ok-	se-
	dis-, dans			uper-	oc-	s-
	tra-/trans-			ep-/ef- /epi-		

nean eta *Mendiaria/Montería/Monterrey/Mandarria/Man-
terre/Montoro/Montero/Montorra/Montreau* atziki denean.

Horrela, bai euskarak eta bai erromanikoak iruzki jainko-
aren giharraz osatu zituzten materia adierazteko *-aria/-ar/-
ra, -eri/-aire, -uri, -oria, -oro, -iri* atzizkiak. Aurrizki eta
preposizioetan, berriz, *arra-, erre-, era-, ira-, re-, er-* eta eure-
gazko konposatuak.

ILU/El arketipoak *Uliammedi/Elamendi/Olamendi* bezala-
ko izenak eman ditu nor betea denean, eta *Mendilu/ Mon-
toliu/Montella/Mendiola* bezalakoak buruaz buztana egiten
duenetan. Latinak eta erromanikoe-
bederen *-illu/-illa/-
ellu/-ollu* diminutiboen edo bestetariko *-al, -el, la, -le* atziz-
kien harrobia idoro zuten bertan gramatikarako. Aurrizki-
preposizioetan, berriz, *lo-, lu-, el-*.

KA arketipoak, giza mailako izanik ere, ba du mendietan
opa-izenik: *Gamendia/Igomendi/Egimendi/Akemendi/Oka-
mendi/Ajumendi* aurrizki delarik eta *Mendiaga, Mendiko/
Mondego/Montijo/Móntica/Mentxika/Montac* atzizki ager-
tzen dela. Bertatik eman dute hizkuntzarako gaia, atzizki-
etan *-ko/-ku, -ika/-ica/-ico, -ca/-co, -aka/-ac, -aga-, -igo, -ki/-gi*

eta aurrizki eta preposizioetan etan *ek-*, *co-*, *ok-/oc-*.
BA arketipoak ere, ba du mendien izenik *Ibamendi/Piamonte/Pimenta/Obamendi/Bamonde*, *Baamonde* aurrizki denean eta *Mendibe/Mendavia/Mondova/Mondovi*, mendia-
 ren buru barik, haren oin egiten denean. Hizkuntzak ere arrastoa utsi du *-be/-pe*, *-va/-vo*, *ba/-bia/-via/-pia/-pio*, *-fa/-fo* atzikietan. Aurrizki eta preposizioetan, berriz, *be-/fe-*, *epi-/ep-/ef-* eta eurekiko konposatuak.

SHE arketipoak ere ba du bere eineko izenik mendietan *Etxamendi/Esamendi/Ezamendi/Semendia/Asmendi/Az-mendi/Eizmendi/Ayamendi/Ayamonte* izena aurrezki due-
 la, eta *Méndez/Montesa/Montes/Montech/Mandas/Mendaza/Mundaiz* atzizki bezala. Uhari zabaldu ditu bere hotsak hitz-
 kuntzen egituretan: atzizkietan *-tza*, *-esa/-es*, *-eza/-ez*, *-sia*, *-esse* baitipat eta *etxa-*, *itxa-*, *eis-*, *ex-*, *es-*, *s-*, *se-* aurrizki eta preposizioetan. (Ikus tokizenen egiturak VIII zatian)

Eskema 3n.: ATZIZKIAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
-(e)n	-tu/a	-ar	-illu/a	-be/-pe	-ica/o	-tze
-ana/o	-tio/a	-er	-la/-le	-va/o	-ko/u	-es/a
-(a)nia/o	-ti/-di	-ara	-ullu/a	-ba/-bia	-go	-ez/a
-enea	-tto/a	-aria/o	-el/a	-via/o	-ki	-sia
-(a)ña/o	-txu/o	-aire	-al	-pia/o	-gi	-za/o
-(o)n	-dui	-era/o	-lia	-fa/o	-ca/o	-ese/a
-ina/o	-so/-jo	-iri	-il		-aca/-ac	-ex
-in	-su/-ju	-ur(i)	-l		-aga	-esse

1.10. Sinonimoen lekukotasuna

Zergatik hizkuntza berean bi edo lau sinonimo gauza bera-
 ri deitzeko? Gogora dezagun Sumerian eta Egipton apaizek
 eginiko zerrendak. Idea bera honela edo bestela esaten zan

jainko bakoitzaren arabera. Onomastika haiek geroko hizte-
 gien eredu izan ziren Mediterraneo inguruko lurralde as-
 kotan. Jainko nagusi bakoitzak bere zerrenda zeukan eta
 zerrenda bakoitzak jainko horren arketipoa jartzen zuen
 hitzarren aurrizki. Hizkuntzaren sinonimoak barrura begi-
 ra, zein beste hizkuntzekiko aldean ikusita, zazpi ereduotan
 oinarritzen dira. Herrien kulturak elkarren leihakide dira,
 zeinek baino zeinek bere jainkoei lehentasuna ematean, eta
 hasieran hizkuntzak elkarren antzeko zirelarik ere (Has 11,
 1-9), euren hazkunderan gero eta tokiz elkarrengandik ur-
 runtzean, alde handiagoa hartu zuten hizkuntzan ere.

Deigun *aintz/doxa(g)/honor/gloria/zelu* sinonimoen andana
 edo *norma/edu/arau/lege/kanon(g)* edo eta *maite/dôd(h)/*
eroñ(g)/love(i)/cupio/estimar, berdin *dogma/eritzi/opiniôn/*
creencia/siniskai, etab. Hitza aztertzerakoan, haren *narea*,
sustraia, *erroa*, *leinua/linaje*, *genus(l)/genética*, *belaun/bástago*,
jatorria/estirpe bilatzen dugu. Sinonimo guztiok aipa-
 tzen ditugu “arketipo=eredu” hitzen muinean. Hitz guztiak
 dira jainkozko erroez eta giza-jatorrizkoen osatuak, baina ez
 erroak bakarrik, bai eta hitzaren gainerako zatiki guztiak.
 Baina, zer dela-ta *mintso/erran/eleka/esan* euskararen bertan,
iron/eragon/ihardetsi, etab. sinonimoon tirabira? Arketi-
 po=ereduen el-karren lehiagatik. Edo zelan esan behar da:
naranja, *toronja*, *aranxa*, ala *laranja*? Ako jainko arketipoei
 galdetu, ez ba-karrik kultura bat edo bestearen ahozketari
 edo belarriari, jainko berezienganako lehiari baino.

Erro bakoitzeko hitzak, ots, monosilaboak dira honetan
 arketipoekin bat egiten dutenak. Monosilabook bokalen al-
 daketaz, inplosioz edo esplosioz ahozkatuaz edo erro bera-
 ren errepikaz uharitu-hitzak hoiexek dira protohizkuntzen
 lehen lorpenak, hortik azertu beharko lehen-euskara ere.
 Geroago, leinuen ezkontzako erritoen araberan, sortu baizi-

ran aglutinadoak, eta aurrizkiak, atziki ere egitean, hizkuntza zauliak. Euskarak hizkuntzen hiru adinon altxorra gordetzen du bere egituretan. (Ikus sinonimoak IX zatian)

Eskema 4n.: JAKINDURIAZKO ONOMASTIKA ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
<i>kalitate ona</i>						
nemeqy(h)	docto	argi	listo	versado	geshtu(a)	azkar
normal	duin/digno	regular	leal	burutsu	capaz/gei	sagaz
entero	zuhur	ertain	lúcido	avezado	cabal	sesudo
mañoso	juicioso	arrunt/ordinario	berezi		gurbil	zentzudun
<i>kalitate txarra</i>						
inoso	tuntun	raro	lelo	bobo	cateto	txatxu
necio	tonto	raka(ar)	loka/loco	baga	gaizto	txar
memo	soso, zoro	rega	lerdo	palurdo	cazcarria	chalado
<i>ofizioa, nortasuna</i>						
emky(s)	sofista	rabi(h)	logios(g)	bardo	actor	sabio/jakitun
maestro	doctor	rector	letrado	filósofo	gnóstico	esatari
antzedun	zogi	artista	lector	poeta	glosista	azterle
<i>jarrera ona:</i>						
maratz	zoli	aratz	leihal	fiel	garbi	zale
on	zuzen=justo	artez	alai/lúdico	bueno	gogotsu	zintzo
manso	otsan	recto	lehial	puro	casto	sensato/serio
mana	dócil	arduratsu	alegre	presto	gertu	esmerado
<i>jarrera txarra:</i>						
nagi	donga	rácano	lijero	vago	cativo	setati
nece	duro/usu	rebelde	lento	pillo	keto	zeken
nabar	terco	arlota	alper	pelma	golfo	zantar

II. UNE ETA ALDIEN EUSKARA EREDUAK

Une eta aldien = *espacio y tiempo* egiturak elkarrekin doaz eta nonbaiten/noizbaiten ikusten dugu euren hasiera eta kokapena, eta, gomutara erakarririk, antxinatean eta urru-nean ikusten dugu izadiaren eta izadikoekin baterako sorreran. Aldi horrek geroko aldiekin zerikusia du, "izan zirelako gara" esaten dugunean bezala, edo antxinako mitoak giza asmo eta kezken zergaitia azaltzen digu. Antxinako herriek antxinako jainkoen eta eroien garaian ikusten dute euren jende eta uriaren sorrera, orduan gertatu bai-ziran gaurko giza zioak azaltzen dituzten ekintzak. Beraz, gizaldi haiek gogoratzea eguneko arnasa hartzea gertatzen da sarritan, edo "joanak joan" esakerak berak ere damuz, hobeak-edo bailiran, aipatzen bai-ditu joaneko garaiak, Sumerian edo Israelen hako paradisuaren atsegina bezala. Ipuin harri-garriak ere "anbiola, antxina baten" kokatzen dira, hasierako aldien gomunta mamgikoa erakarri nahirik. Herriek urtero ospatzen zuten, hako aldi gogoangarriak haserako zoriona irauzaz edo itzuli zezaten. Jaialdiko errituen ohikunak ba du hatarako berba bersortzailerik eguneko gertakizunen gainetik, antxinako jainko ekintza salbagarrien oroitzak elkartearen bizia irauzaz eta etorkizuna zabaltzen duela, gogoratzea bizitzea bai-da.

Halako aldien aipamenak orduko jainkoen izenekin loturik bildu eta mitoen logikan ikusi eta gero, egoki zaigu euskarak, eredu eredu, honetaz zer dinoskun jakitea eta, orobat, inguruko hizkuntza zaharrek, gauza berak adierazteko, euskararen aldean, ze aukerak egin zituzten egizatzea.

2.1. Une eta mendeen izenak AN jainkoaren eredura

Mendi ertzak zeruan N/M antzezten du jeroglifikoetan. Haren angelutik begira, hona monosilaboak: *an*, *emen*, *nun/non*, *une*, *muin*, *muna/muno*, *ainu*, *ana(g)*=goian, *in(l)/en* dira, zeruaz edo goiaz loturik dagoz *ainu*=“eguzki-sarrera” edo *muna/muino* hotsek uren gainetik *nabari*-berri=emergeder oinarrizko *munoa* gogoratzen digute *ainube*, *nube*=lainoek jainkoen agerpen eta *mendiak*=*monte* jainkoen santutegiak eta gizakiek harenganatzeke, *malkorretatik* zehar, *mailadiak* eta *mailoak* dira. Beste hitz asko *An/Anu* arketipoz aglutinatuak izango dira eta batez ere aurrizki daroenak izango ditugu kontutan. Horrela *antxina/aintzina* egiturak *une/mendeei* lotu ikusten ditugu biak, baina *antes*, *antiguamente* formak joaneko uneekin soilik loturik dagozen artean, *antxina/aintzina*, *antea(l)* atzera ta aurrera begira dagoz. *Antxina/amaia* berbak *une* ta *mendeen*=*enet(h)* espazioko=ámbito makoa osotzen dute, *une/mendeen* *anbiltzeraino*.

Unei bagagozkie, *Anuren* oinak eta oinatzak *nausitzen* dira *nun-nabi*, *Anu* dela denaren *untzea*. *Non/nundik*=*unde(l)* dira galderak, *han*, *hemen*, *inon*, *nonbaiten* erantzunak. *Zeru-makoa*=*empíreo*=*nadir*, *uin*=*unda*=*mare(l)* *mando*=*magno*=*antua/andia*>*ancho*, *enchido/inchado*, *aindi* edo *aintzina*=*antea(l)* dagoena. Kolorez, *Anuren* *mantua* *antzo*, *anil/añil* da, *untziz*=*nave(l)* *nabigatzen* dira *uinak*=*unda(l)* *ondarretik* *ondarrera*, *Ra marinel*=*nauta* *nagusiak* *antzo*. Goiko zabaldiei *naba* deritse, ibai *ondokoei*, *madura*, urtegiei, *aintzi/aintzira*, *ondoan* *Anu* ispilatzen dutelako. *Anu* jainkoaren *makoak* *magala* ezarten dio lurrari *ingurumarian*, *emiron(f)*. *Nebiru(s)* da ipar-*muga*=*Norte* seinalatzen duen izarra. *Mun/muga*=*mojón* haren *marrak*=*margen* dira. *Mugok* *neburri*=*medida* bakoak direnez, gizakien oinak u-

natu/nekatu egiten dira *mugikera*n=movimiento. *Masi-a(ca)*=*mansión* eta *mandioak* *maneatzen* ditu, *enparantza* *inguru* duela. Lur *barrenean* (*infra(l)*, *infernu(l)*)=*inpernu*a dago egitiarren *Am-duat(e)*. *NON* galdegaira *-an/-(e)n* atzizkira erantzuten dute kasoek edo *in*, *en* preposizioak: *etxean*=“in domo”(l)=“en casa”, *An* arketipoaren hitzetik ortzera.

Mendeei=*enet(h)* erantzuteko *NOIZ* galdetzen da *engoitik*. Oin egitura *Anuren* genitiboa da eta *uneon/une* honetan esan nahi du, *antxinakoaren* ospakizunari, berriz, *Anum.zaro(s)*=“*Anuren* sorkuntza”=*Ononzaro*=*Año Nuevo* deritso, orduan hasten bai-da urtea=*annu(l)*=*año*, *Anuren* *mendeak*=*nausigoak*, *mendez mende*, *markatzen* duenez. *Mende*=aldia, *mende*=gizaldia, baina, *mendez mende* edo *menderen* *mendetan* *mende*=agintea duenak bakarrik iraun dezake. *Mendi* toki sakratua den bestean, *mente/mende* aldi osoa da, *memento*=*momento*, berriz, *igarokorra*, “*une* kau”=*nunc(l)*, *enkaran*, heriotz ordua, ez dena *nunca*=*inoz*, *inos*=*inoiz*, *noizbehingoa* eta *urtemun/urte-muga*=*aniversario*, *anartean*=*entretanto*, *antes*=*antea(l)*, aldi *neurtuak*=*medidos* edo *hurbilak* diren bestean, *mugonean*, *une* egokian da eta *antxina*=*ancien(f)*=*anbiola*=*antaño*=*antiguamente* historiak misaka ez ditzaken aldiak. *Nana(s)*=ilargiak *neurtzen* ditu ilak=*mense(l)*=*mes*, *Martu(s)/Marti* jainkoari eskainiak dira *Martia*=*Marzo* ileetan eta *Martitzena*=*Martes* asteko eguntan. “En tiempos de *Maricastaña*” esaerak ere, hako *antxina* haretako jeinuaren *unera* bihaltzen gaitu.

Mendeen makoa biribila denez, *uneak* hasten diren *antzera* *amaitzen* dira, *aintzina*=geroa ere ba dela. Giza eskuetan diren aldien *mugida*, *antolatuz*=“con *antelación*”, *aintzindu* egin daiteke, *aintzearen* *nehurrira*, *engoxan* edo *eguzkiaren* *ainuak*, *inubar/inular*=*anoche*cer eta *nabar*=*amanecer* orduen arabera.

2.2. Toki eta adinen izenak UTU jainkoaren eredura

Toki adinak Utu edura adierazteko, monosilaboak ditugu sustrai: *itu, ate, ota, odi, uda, udda, odei/edo*, etab. *Utu*=iduzkia berez da begien *itua*, bereak *itoi/ostutzeko atea*k eta *ostateak*, bereak *otarainoko tatoak* eta *trokarainoko trosta*=*trote* eta “*tumboak*”, berea *uda*-aginte *totala*, berak bihaltzen du (*h*)odeitik, *oditik edu, udda*. Berea da, *tarrantarena* bezala, egunero=“a *diario*” *iduli* eta *itzultzea*. *Utu*=iduzkiaren aldiak *tturiak* dira eta haren bideak=*odos(g)*=*trotoire(ff)* eta *odiak tholsak* edo *uddeztatuak*. *Utu aitzin* daukagu edo *ostean*, mendiko *tenplotik itoitzen*=*subir* denetik eta *otako dolou(g)*=*duelaraino* *igon*=*tollere(l)* daino, berak bai-daroz=*tullit(l)* *soloa*=*suelo*=*soroa*=*zoro* eta berak argitzen *tu(s)* bai-du gure bizi *tokia*=*topos(g)* *dove(it)*>*sub(l)*>*so* sotoan.

Bere *otatik*=*otero* *lurrera othustan*=*adi tulunbio*=*sima* eta *uts/utsunea* *dager*, *troka*=*trocha*=*torca*, *txorko*, *tuzuloetatik itoititu*=*surgere(l)*=*sortu* eta *usin/osinean* edo *itxosoan itto*=*sumergir* edo *tontor osteko ostenetan ostu* edo *ostatuan atotsi* daino. Bera *ostuaz* batera, *lurra oztu* egiten da; *Sortaldeko aitzinean* berarekin *topo* egitean, *tturia* da *eguna*=*día*, *Oeste ostean*, *ostu* deneko, *ilun*=*oscuro*, *ostera*. *Lurra tormu*=*terrón* da bere *eduko deieraz*, *mendia*=*tontor*, *odeiak* bere *tronu*, *otatik othustan*=*oteando* *diharduela* bere *udjat(e)*=*begi tokor* edo *udigozko*, gure *barreneko tolesak* eta *otumenagino aitorzen* dituela. *Utu* bera da *norabideen otana*, bidez *doa*=*odeuo(g)*, goiko eta beheko *uddak* ornitzen, *uduki-zuinak* *uddeztatzen*, *otako adarrak odia* egiten diela eta, *uddak itoitze*ko=*subir*, *zubia*. *Udoian* darakus arpegia, *idolan idorotzen doea*, *otikan* *babesa*, *iluntze orduan*=*tunc(l)*=“en la tarde”, *tormu-atakan*, *trikuarrian*=*dolmen*=*túmulo*=*tonban* bereekin *otoz-otoan atotsi* edo *iduzki*=*duzmai(g)* dadino.

Utu aldia=*et(h)*=*tenpore(l)*=*-te*: *eurite, gudate*, etab. *atxinatik*=*tore(g)* dator, *tangka* ematen ditu orduak, *aste/días* edo *urteak*=*etos(g)*, batean *Udabarri*, bestean *Uda* edo *Udazken*, ileetan *Uztail* eta *Dagonil tholsenak*, *Subilaro*=*solsticio*=*trofe(g)* *ospakizun oituran subil*=*tronco*. *Otsil*=“il otza”, *Ostegun*, *Ostiral*, berari eskainitako *ilak* eta *egunak* dira. *Tempore(l)*=*denbora* *etorri* da, aldiez *eguraldi* eginez. Aldi bereziak *otordu*, *otoz*, *ostantz*, *ostean*, *oxtian*, *tarde*, *temprano*.

2.3. Oru eta orduen izenak RA jainkoaren eredura

Ra/Horus ereduen erroitik dator *iruski* egitura. *Ortziko arkuak* finkatzen ditu *ur* goienak eta *ur* barrenen gainean oinarritzen da *artean (h)artzen* duten *oru*=*zorua* eta *mendiak*=*orus(g)* eta *Ra/Horus*=*iruskiak* *ortziko urez* eta *orei artean orbide* *ibilian organ iraultzen*=*rõ(g)*=*ruit(l)*=*rueda*=*rula*=*riela* *errodan* *bidea*=*rúa*=*raíl* edo *goiko-beheko ibar/riva* *uretan arraunez* *eroaten* ditu *ordua*k, *eretiak*, *urteak* bere *orenaren orratzak* *iragartzen* dituela. *Ra* *iruzkia orzargian* *urten*, *ortzira arintu* eta *arratzean eroriz*, *ortzi* egiten da. *Irradan* *dabil* eta bere *errokaren*=*rueca* *iraul* bakoitzeko *ortziaren ertzetik ertzera*=*orizonte*, *argintxio* eta *arratza orube*=*orbe(l)*=*iruzkipean* eta (*h*)*ortik oru*+*tu*>(*h*)*ortu*, *Horus*=*iruzkiak (h)artu-lurra*=*solera*, (*h*)*ari* agindutako *erria*.

Ra=*iruzkiaren urteera*=*horto Erkingu(s)* *deritxo*, euskaraz bezala, *Oriente* latinez, *handik* bai-da *eregiten*=*yergue*=*oritur(l)*, *handik erdutzen*, *gero ortzira arintu* eta *arrastian arroilan ertutzeko*.

Oru da *iruzkipean orube eraikintzarako hortua/huerta*, *arana* *deritso* *ibar jasoari*, *arru Ra* *eroiak arrapaladan* egiten dituen *arroile*=*raja*=*rendija*, (*h*)*arri*, (*h*)*arrate*, *arkaitz*=*arpe* bidean *erreta* *uzten* *duen erriari*. *Ra*, *arge(g)*=*rege(l)*=*errege* *denez*, *uria/iria*, *erria*, *herria*, *erresuma*=*reino* eta *erorkia*

Eskema 5n.: UNE, ALDI, ZENBAT, NOR, ARKETIPOEN ARABERA							
	ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
NON	an	donde	or	allí	ubi/ibi	hic	asau
	aindi	oste	arriba	allá	post	gain	zeruan
	ona/on	sub	ur	longe	bertan	gertu	cerca
	inon	tras	urrun	lejos	hemen	aquí	zehar
NOIZ	antxina	odie	ora	luego	belu	cuando	jam=ya
(1)	ancien	atxina	orain	olim	bein	gero	atzen
	nunc	atzo	arin	lein	bart	cum	jamás
	nunca	tunc	eri	aliquando	postea	gaur	ayer
	inoiz	atzo	arche	laster	bihar	goiz	sero
NOR	en/ni	tu	er	ille/él	bera	ego/yo	txe/je
	mi=me	tto	eurak	le,la	vos	gu	zer
	inor	su	(h)ar	lui	beste	cui	ése, éste
	nos	zoin	ura	los/les	hic	quién	zein
	nemo	zu	urle	alter	hako	kau	se=ses
	neure	su/zure	euren	illius	fulano	gure	sfon

(1) Ohar gehiengozko genitiboak *antxina/atxina*, *atzen*, *orain*, *olim(l)*, *lein*, *bein*"

uzten digu *erentziz*, bai eta *erriertarako erra* eta *arrabia*. *Orue (h)or dago*, *(h)ur* edo *urrun/urran*, *urruti*, *aurrean dago*, *erdian* edo *arte/terra(l)* dago. *NORA/NORANTZ/NORAI-NO* galdegaiak ere *RA* arketipoaren *artizarra* edo *iparra-*
ren=ártico orientabidea eroan daroa *erantzunean*.

Orzondo=aurora orduak=ōra(g), *arche(g)* *Raren* erroko *Horus=Orenzarok iragartzen* ditu. *Aldiak*, *aroak* bezala, *erro-*
dan="in rota"(l) doaz, ez *artesean*, *iruzkiaren arku*a egiten bai-du, bakoitzean *aro/aro*i berezia daroela, batzuetan *ar-*
min, bestetan *azaro*. *Aroa* bakoitzaren esperientziari lotuta dabil, hagaitik *hautzaro*, *gaztezero*, *zahartzaro* bereizten ditugu, egiptiarrek "*Horus (h)aurra*", "*Horus gaztea*" eta "*Horus Handia*"=*Urtzi Urena* ohi bezala. Hortik *Ortze-*
gun, *Ortziral iruzkiaren* asteko egunak ere. *Urtarril=Urtats*, *Erearo iruzkiaren urte* erako *ila* eta *Ekaina Urte/rota(l)=rue-*

da irradián asten deneko, *ots*, *urt* egiten dueneko *ila* da, *Urri/Urrite Raren* beherakadako. *Orain*, *Horus* jainkoaren genitiboa, *arin=rápido* doa edo *artez*, *eri(l)=atzo*, *erenegun*, *ereti="rato oportuno"*, *arik* eta *arrastian ortzi arte*.

2.4. Leku eta aldien izenak ILU jainkoaren eredura

Ilu jainko *leinuaren=linaje lekua=locu(l)=lugar muga=li-*
mite(l)=linde gabea da *luzeran* eta bere *aldiak ilimini=luzaroan luzaro=lm(u)* dirau. *Lainoen alturatik lurraren leze-*
raino labantzen da, *lauan*, *lehiarik* gabe, *lurrean=limo leun*
Euskara deskribatu ezeze, haren ereduak antxinatean idoro nahi dituenak lan berdina egin behar du, non sinbolo-mitoterritoak han aurkitzen bai-dira hizkuntzaren erroak ere. Horrela euskal Etnografia eta euskara elkarren eskutik doaz, batak bstearen aitor egiten dutela. Etnologiak zioen argitasuna ematen duen bezala, hala euskarak eredu berri amango du, antxinakoen zentzunez galdetzen bazaio, ots, sinboloak antzeman, mitoak elekatu eta erritoak ospatu zituzten herrien zentzunera itauntzen bazaio. Antxina bateko

Sortalde Hurbilekoen errito-ohikunak hasiera batetik gaurdaino gurean gorde izan baditugu, haien sinboloak ere gure hizkuntzaren eredu dira, ez haiek asmatu zituztelako, gure ere haien ikuskizun bereaz izadian sumatu zituztelako baizik. Egoki da, beraz, haien ohiturak eta testoak ikertzea eta euskararen oroimenari galdetzea, ea bien arteko tximistak argirik sortzen duen.

4.1. Euskal etnografia AN arketipoaren arabera

Euskarak gorde ahal izan duen jai ospakizunaren oroimen sakonena *Anu* jainkoaren *Anum.zaro(s)* = “*Anuren sorkuntza*” = *Ononzaro/Onenzaro* deitua izan da, ain zuzen ere, gero kristauak Kristoren *Nativitate(l)* = *Navidad* = Jaiotza ospakizunerako darabiltena. *Anuren* = jaiotza, herriaren jaiotzaz lotzen zuten sumeriarek, eta *Anu* = zeruaren jaiotza berebiziko zetorren Jainko Semearen Jaiotza ospatu ta berri emateko, *neguko* Eguberritan *Anuk* bihaldu-Utu = iduzkiaren berrindartzea ospatzen bai-da.

Inote/Inaute/Inoteriak: Urteberriraz gero, Elizak inoiz be-deinkatu ez dituen *inoteak* ospatzen dira. Urteko *anoa* = *annonna(l)* zan herriaren ardura bizia. *Anu* jainkoa inoz eta *inoka* txarmatu behar zan, *inozoak* eta *inudeak* aurretik zirela. NORk *inutu* behar zuen herria, *Anu* jainkoak izan ezik? *Ino* = “kexu/kexutze” bada, *inote* = “kexu-garaia” da: *Ino!* = *Yinko Jaun!*, *inoka* = arrenka, erromatarren *ambarvalia* erreguetan bezala, *inoka* = “kexuz eta buruari eragiten”. *Inudeak* = *inudes* = *nodrizas* *Anu* beraren *inutze* lana darraie, baina *inozoak*, *enkeñuz* edo *engainuz*, ohiko *inuttu/anutu(s)* *Anu* jainkoari eskeiniak bezala, *Anu enoiatu* edo haren *enoiak* = *enojos nasaitu* behar dituzte. Euren *ino* eta *iminiotiokaitik* itxurgatzean, esangurea ere aldatu egin zitzairen. *Inaut* esaten da, bestalde, iduzkiak bero tholsa agintzen due-

nean. Ospakizun biotan *nabari* dago *Anuren* jarraileen erittoa *Anu* aitortzeko eta eregutzeko *inoz* eta (*h*)*imnoz* bat datorrela, eta beraz, hizkuntzarekin.

Inka/Inko: *Inko* *Inoren* partekidea da egituraz, haren semea-edo bailitzan, seme gizatua, alegia. Utukku *Uturena* edo amako amarena den bezala. *Inkori inka* egiten zaio otoitz. *Inkaz* jardutea “con *ainco*”, gaztelaniak ere soinu duenez, ekitea da, *inka-minka*, “*Inkori inka* eta lanari *minki*, “a Dios rogando y con el ma-zo dando”, esakeraren hurreko dator.

Ainen, ainanino: *Inka* egiturak *ainenka* du kontrako, otoitzak biraua bezala. *Ainaninoak* *Anu* jainkoaren *angeruetari*-koak izan ziran: *anunnakku(a)*, *anunakene(s)* eta *ainaninoko* deitu izan dira gaurdaino ume bihurriak. *Ainen*=*maldición*, *aineneko*=*maldito*. *Marduk* jainkoak zeruko eta lurreko *anunnakiak* banandu zituan, *Tiamat*, aren arerioaren alde urten zutelako. Langile bikain izan omen ziran, *Esharra*, haren temploa eraikitzen, tresnak asmatu eta arriluak egosten. Eraikintza harrigarriak egotsi zitzaizkien *anunnkuei*, hako “Kastrejanako zubia” ipuinetako *ainaninoei* bezala.

Inguma izakiak, amets gaizto, *mamurru* edo lagun ere esan nahi du. Otoitz batek “*Inkoa* ta *Andre Maria*” hartzen ditu euren kontrako lagun. *Anxo* ere izaki gaizkinen=*maléfico* artean aurkitzen da, gizajale nonbait, eta ba du *Antzomendi* izeneko santutegirik.

Oinetsitu/oinestu/inisitu, *oinestarri* izadiko indar izugarriak ere jainko agerpenak ziran. *Oinestarria* jainkoen arma berezizat, eta eurak jaurtin gezizat, alegia “gizakiek ulertzen ez duten zur eta harri arazoa” bai-zan, Ugaritekoak mitoen arabera.

Ama-jaurletza=*matriarcalismo*: *Anuren* alaba *Inanak* aitaren *me* erabakiez jabetu eta, edozein sendian jaio ohi dena, *Inana*, jainko-alaba eta Dumuzi gizasemaren artean nor *nagusi*,

estabaidatzen zuten. Zeinen *narea* zen bikainagoa. “*Neurea* da *nagusitza* (...) Ez dut utsi *amaren* eskuetan agintea, ez (*Enki*) *anaiari* utsi gobernua”. *Enki*, *Anuren* seme eta *Nin-hursag amak* ere aita eta alaben arteko *nabastarrea* garbitu *nahi* zituan behingoz, Sumeriako paradisuan, *andreak* hartzen zuela ekanduen ardura. Hortik *emarazi*=*mandar*.

Amek betiere, *Anu* jainkoaren izadi-lana aurrera daroe eta “*amaren* agindua seme-alabekana luzatzen da”(Sir 3,3) Etxeko eskola *amarena* da. *Amak* erakusten du hitz egiten, “*ama* hizkuntza” esaten da, jakinduriaren lorpena ere “atsotitza” da euskaraz. Esakerok biribildu eta erakusteko ardura eta zuhurtzia *amomak* du. *Ama*-jaurletza edozein kulturaren unea izan ziteken, baina euskara lekuko berezia da monosilaboetan: *nai*, *ama*, *eme*, *ño*, *anaia*, *aina*, *aña*, *man*, *men* bere errepika ta guzti, *mama*, *mami*, *niña/o*, *ñeñu*, *naina*, aglutinadoetan: *maite*, *naditu(s)*, *nintu(s)*=*andre*, *amatu*, *amatto*, *amado*, *neba*, *andere*, *nagusi*, *anabi*, *amatxi*, *amona*, *amabortze*, *ambitxi*, *amarratu*=*amarrar*, *amarru*=*amaño*, *amatigo*, *neska*, *mutil*, *mende*, *mando*, *menpe*, *mancipiu(l)*=*mancebo*=*morroin*, *mirabe*=*ancilla(l)*, etab. Guzti hori da *amaren* berezko *mendea*, *amaren marka* daroana eta *amaren umontziak* eta *magalak eman* duena. *Eme*>*emarazi* dator, *mende*>*mendu* bezala. Bere *mentua* du.

Mari: *Nin.mara(s)*=“*Andere Mara*” zeritson *Mari* uriko jainkosari. Bere janzkiak bolantaskoak ziran, sumeriarren modakoak, halakoetan jantzia agertzen bai-da *Inana* ere. *Mari*, neosumeriaren garaiko uria, Eufratres eskumaldeko erdigunean kokatzen zan eta kulturaz bai ekonomiaz ospetsua izan zan inguruko herrien artean. Ohar *Nin.tu*, *Nin.mara*, *Nin-hursag* jainkosen izenen arketipoak, zein baino zein luzeagoak. Denak dira sumeriarrek, baina *Nin.mara* egiturak egitiarra du azken eredua. *Mari/Meri* izena egitiarrek

maite izan zuten izentzat egiztatzen da hango idazkietan. Harrigarria da izen hau gure mito-ipuinetako Amboto *Mari-
ren* izernarekin bat etortea eta, areago, jainkosa gehienek bezala, izadiko indarren jabegai agertzea.

Egiptoko jainkoetan Ra zan *nausia*, baina haren gobernu goitarra *Maat* jainkosaren jakinduriak ebazten zuan. Bereak ziran gizarte-jardukerako aginduak egiztatzea, *Maat* bera bai-zen, azken baten, Osirisen epaian gizakien bihotzak pisatzen zituen. *Mari* euskaldunen jainkosak ere bere aginduak ditu: “ez gezurrik esan, ez ostu, eman-hitza bete, elkar lagundu, kontu harrotzeaz eta lagunurkoei errespetoa gal-tzeaz...” Hara bere epaia: “Gaizkileak egin duenaz eta huts egin duenaz beraz zigortuak izango dira”. Hagatik gaizkileek huts eman edo hutsean baieztu ondakinez bizi da *Mari*, “ezaz eta baiaz bizi naz”. *Maat* jainkosaren epaitegian arimak itzuleztara aitortzen ditu bere pekatuak: “Ez dut ostu, ez dut inor hil...” etab., ukapenaren *magiak* berak pekatua desegiten zuelakotan. *Antza* denez, jainkosa biok dute *magiaren* eragina, baina ez dira, nonbait, artesi berdinekoak. *Mariren* senarra *Maju* <*Mattu* omen zan eta *Mari Maya* <*Mattia* > *Maide* ere bai omen zeritson, mendien santutegiak egiztatzen dutenez: *Mairumendi*/*Murumendi*/*Mayamedi*, *Maxamendi*.

Marti/*Martu(s)*/*Martio(l)* > *Marzo* jainkoaren izena ere ondo txertatua gelditu zan gure kalendreran eta hizkuntzan. Ba du Akitaniatik *Ainumendira* gurtua izan zen *Marte* jainkoarekin zerikusirik. *Martu*, *mortuko* jainkoa zen Sumerian, *Marti* udaberriko baratzaren *ongile*, *Martintxu* lanabesen asmakari trebea eta *Marte*, berriz, *medikutzan* aritua, erro-matarrek guda *mutil* izentatu aurretik. *Marti*/*Marzo* eta *Mayatz*/*Mayo* elkarren ondoren. *Maiatzean* ospatzen zen *neskatto* berrien plazaratzea, “Fiesta de las *Mayas*” *Nafarroan*

edo *Mayatz*-aretza = *Mayo* plaza erdian jasotzea. Jai honek ba zuen *nerabe*-jendeak, *morroinak* eta *neskaxeak*, gaztaro mundu berrian, otoz-otoan barik, halako erritoen herri-eskolaz eta abegiaz gizartean egoki sarrarazteko asmo ederrik.

Mamau = *Mamu* = *Momo*: *momo* = loaren inguru sortu lola-gun jainkoa edo irudikizun bildurgarriak dira. *Momoak* = loak, sikologisten arauz, hasiera bateko mundu sakonera eramaten gaitu. “Apsu loari emonda, etxunik zegoela, *Mumu*, bere laguna, ezin zan mugi” dino (*Enuma elish*, I) Babiloniako mitoak:”. Horixe bera gertatzen zaio loak hartu dagonari, *momoak* daukalako eta *momoak* = loak berez hartzen duena, haren inguruko *mamuak*/*mamauak* eta *mamuskoak* eta *momorroak* ere har lezake. Ipuinok umeen loaren inguru iraun dute eta, berez, ez da *ama-umeen* harremana baino giro hoberik, antxinatasuna bizirik iraunazoteko.

Malatu/*Malato zuhaitza*: Bizkaiko *Foru Zaharrak*, VI legean, emanten du horren berri, *Nafarroan* ere antzeko ohituraren bat aipatzen omen da. Lege horrek antxina bateko ohitura aipatzen du eta, ohitura-lege horri ezker, bertako gizonak herritik ateko gudaritzatik askatu egiten ziran. Sumeriarrek ere ohitura-lege berdina aipatzen zuten nausitu-berri erregeen buruketatik jaregin gelditzeko. “Sippar, Nippur edo Babilonia gudara deitzen ba ditu eta aldarriz lan eta gudura behartu, *Marduk*, jainkoetan jakintsuen den onulariak, etsaiari emango dio halako herregearen herria; haren gudara lanera behartuko ditu etsaiak, Anu, Enlil eta Ea jainkoek (...) batzarrean erabagi bai-zuten bere jendeak halako beharretatik aske zirela”. *Marduken* garaitik *Anuren* garaietara hiru-lau mila urteren aldea ba dago, baina sumeriarrek idazkietan eta oroimenetan gordetzen zuten ohiturazko legea.

Sumeria bezalako nekazarien herria, bakezalea zan kulturaz,

jainkoak baino beste nagusirik edo legerik ezagutzen ez zutela, edo eta eurek burujabe izan zireneko garaiak aipatzen dituzte atzerriko errege berriei erantzuki. “Oharrak” deritson idazkiak herriaren aldeko ohitura-legea aipatzen du, jatorrizko ohiturak edozein printzeren arrandi gaintetik ezarriaz. Euskaldunek ezer besterik egin dute *Malato-Zuhaitz* horren *mitoaren* izenean? *Malatu* ereduak aztertuez gero *An+Ilu>Enlil* silua erakusten dute aurrizki. *Malato*=gaisoa adierazten duen aldetik, *Enlil* izan zan giza aduaren esku, eta *Enkidu*, Gilgamesen laguna, erio-gaisoaz eritu zuena. *Andana, Enten*: *Andana*=uzta da *AN+Utu* arketipoez taxutua. Ba dago *Enten* izeneko jainko bat, *Enlilen* kidea eta berari dagozkio, ain zuzen, “uzta ugaria ematea”.

4.2. Euskal etnografia UTU arketipoaren arabera

Subilaro: *Iduzki* hilduari laguntzeko, neguko Eguberrietan=*solsticio=sol nuevo*”=*subila, subil* berria *ixiotzen* zan. *Subil ixiotuak* urte guztian irautea zan asmo, bertatik eguneroko *sua* biztu ahal izateko. Hatarako *subazterreko hautsaz* estalirik *edukitzen* zan. *Sutondoko* berotasuna basoko *zuhaitzak* gordetzen zuten *iduzkiaren* ordekoa zan. *Subilaroz tokor=tronco* berria ebaki behar zenean, *zuhaitzari* barkame-na eskatzen zitzaion, *zuhaitzak*, berezko izadi guztia bezala, jainkoen arlo zirelako jakinduria zaharrean eta, hagatik, Basajaun *eduko*, jainko txikien arduraean egon ohi ziran.

Suari, Utu=iduzkiaren eduko mandataria bailitzan, *otoiak* egiten zitzaizkion, batez ere, norbait etxekotu nahi zenetan, ots, etxerako sagaratu *-tu* atzizkiak adierazten duen bezala. Hatarako *sutearen* inguru bira bat edo beste emanarazten zitzaion, nor haren atxikitasuna *zihurtatzekotan*. *Suaganako* txera=“amor a la lumbre”, *Gabonzuzi* sinbolo arenganako jaiera eta ohikunak ezinulertuak lirake, bertan Jainko-maita-

sunaren sakramentalakoa idoro ezik. “Iruditzen zitzaute Jaungoikoain amoriua bezala iduki behar ginuela etxean”, Mezkirizko emakumearen aitorra dakar J. M^a Satrustegik.

Sua ta udda Iduzki, ezoa eta beroa bezala, jainkoaren emaitzak ziran, baratza *jori* egiteko. Biak beharrezkoak, baina kontuz erabilterakoan. “Ura eta *sua* belaunetik berakoa” esaten zan, biak ere *sorkari usuak/uzuak* direnez, *izua* edo *zorigailza sor* zezaketelako ustegabeen. Ardurazkoa zan gero arrautzei *subil* ikatzaz kurutza markatzea, *txitoak osasuntsu* urten zezaten.

Urte berriz *uddak* berriztu eta lehengo eukiak kanpora jaurtitzen ziran *Dobostin*, jantziak *udolean=torrente* garbitzen ziran. *Uturri/iturri* batzuk *done*=santu izena daramate, hala *Doniturrieta*=Fuensanta.

Zubi/Adar/Ostadar: *Utu=iduzkiaren* eredu eta agerpen ziran, ur goienak eta ur barrenak ornitzeko. *Uddak* iragoteko *odi* bitxia benetan eta haro onen iragarle. *Utuk itoitzen=su-bir* zituan *zubi=adar=ostadar odiaz uddak otara* eta *Adad=Adar(a)=Odoi=(H)odei* jainko-lagunek *uddolak* eta *zopernak* sortzen zituen, *osti/osots* artean, Gilgamesek dinonez.

Zubi harrigarri horren petik igaro zeiten emea ar bihurtzen zen eta alderantziz, arra eme, ur goienen *edo* gozoen, partele gizona zelarik eta ur barrenen *edo* gazien partele, emakumea. Uren ornitzaile izateak *Uturen zubiari/adarrari* seksuen *zori* banatzaile ere ba zela adierazten zuen. *Sumeriako Dilmun*=paradisuan jainkozko-giza bikoteak *Tutu* jainkoari zuzentzen zizkioten *otoiak*, *Tutu* bera zelarik hango argi=*tu(s)* eta giro *tokor*.

Teilitu, Mari Teilitu: *Teilitu(a)*=ahaltsua, *Ishtar* jainkosari eman *tituloa* “Hammurabi Arauen” Atarian agertzen denez. Euskal Herrian, *Teilitu*, tokizena ezeze, hagin jausiaren ordetan berria eskatzeko, *teilatura* urtikatzen zitzaion hagin

zaharra, *otoitz* hau esanez: “Marije *Teilatuko*, gona gorria/ utschu hagin zaharra ta ekazu barria”.

Tuturro=toca: Lehen emazteek kono *edo adar eduko*, *tutur-roa=tourin(f)*, *tturia* eroaten zuten burkotzat. Antxinako moda hau zertan zan ezin igarri izan dute etnografi zaleek. Ez zan Euskal Herriko arazo bakarra, baina, beste gauza askok bezala, XVI.garren gizaldirano gure artean iraun zuen. Halakoxe *tuturroaz* estaltzen zuten burua Sumeriako jainko-jainkosek eta Akadiako Shamashek=*Utu*, orduko irudietan agertzen denez. *Zubi/adar* antzeko *tuturro* hori *Utu* beraren babesa esan nahi zuan. Emakume izorra, “*iduzkiz jantzia da*” (Apok 12,1-3)., ots, goiko *uddez joria*. “Emakumea *Utu edu* da, *gizakia edatzen=edere(l)* du” dino sumeriar jakinduriak, *Utu* arketipoaren *-tu/-du* atzizkia janzten du eskeintzape denak: *naditu(s)*, *neskatto*, *lilitto*, *sinistu(s)*, *andretu*, *maritu(l)*, *donadu*, *xaxatu(s)*, etab. Egiptoko jainkosak *adar* arteko Ra=*iruzki=iduriko* borobilaz ornitu agertzen dira. Emakumeak zeraman *tuturroak*, bere nortasuna eta egoera erakutsi ezeze, erraietako umea zaintzen zuen Ersugearen amarruetatik. (Apok 12,3-5)

Iyoteri/joteri=turrutura=inauterietan *joaldunek*, *ots*, *joteriak*=kalejiran aurretik *jo/joaten* direnak, eraman ohi zuten *tuturroa Sortade* Hurbileko ohikoaren antzekoa da; *joaldunak atorra tturiz* eta *joari ttiki* eta handiz ornidu *doaz*, *joan*, *ixipu=ishipum(a)=iship(s)* araotzaile-garbitzailea eskuan daroela. *Joteriak Otsilean direlarik*, argiako=*tu(s)* dager *Uturen ospakizuna*. *Tuna* ere *soinuz=tonada*=“con ton y son” sari-zun ibili ohi bai-da halakoetan.

Donienak deritse Ekainean *ospatzen* diran “*solticio de Verano*”=*Udako* jaiei. Bezperan “*Donien suak ixiotzen* dira. Bertan *utuldu* nahi ziran, gaitzaren sinbolo diren, “*apoak eta sugeak*”. Ohar Apophis ersugea. *Su/suga/suge*, elkarren aur-

kakoak dira. *Su* beratan “*artoak eta gariak=trigo*” gordetze-ko=*tutare(l)* kantuz *otoizten* zan. *Sutearen* keak=*tufu* etxea hartzea *zorionerako* omen zan. “*Donienez iduzkia dantzaz*” aipatzen dute, *iduzkiloreaz txukuntzen* da etxeko *atea*. *Donien-dantzaz*, *Uztai-dantzaz-eta idduzkiaren* garaipena *ospatzen* zan. *Dantza-soinua tuba*, *tibia(l)*, *ttuta*, *ttulubitu*, *txistuaz* ematen. Bestelako gizarte *usaineko ospakisunetan*, *ostera*, *tobera* jotzen zan.

Iduzki Saindu, *Done Santore*: *Aton(e)/Adonai(h)*, *Done/Don*=Jaon, Jaun *Done* tituloak santuei egotzi-goitzenak dira. *Jona(h)/Joane/Juan* izena ere *Adonai* eredukoa da. Gero *Donienak*=Sanjuanak bezala erabilia, *Juan*, Kristo *Iduzki*-aurrelariaren jaiotza *ospatzen*, mito zaharrak fede berrira erakarten, alegia. *Done Santorez=Domu Santuruz* < *De omnium Sanctorum(l)* santu guztien eguna *ospatzen* da. Jai honek, hala ere, eleizan baino arrakasta handiagoa du hilerrian, hobiak=*tomba=túmulo* *Iduzki Sainduz* loretu agertzen ziren aldiak, berere. *Aton(e)*=“*iduzki aroa*” zan hasieran, gero *iduzki*-arogan zegoen “*jainko adorea*”, *Aton-Ra* jainkoen batasuna, *ots*, *Sumeriako* eta *Egiptoko* kulturen batzea, egiteraino *Thutmosis IV* garaian. *Atonen* salmoak dinonez, “*Sortzaldetik itoizten* zarenean *zure duintasunez dotore doitzen* duzu... Saltaldean *iduzkitzen* zarenean lurra, hila bailitzan, ilunpe gelditzen da” eta bere Himnoak: “*zu nere bihotzean zagoz*”. *Iduzki Donearen iduzkiaren* aroa antzezten dute, hilotzak *iduzki sortaldera* begira *zurto*, *itxutu*, *iduzkitzen* ziran *Atonen duintasuna* lor ahal zezaten, *Osiris* jainkoagandiko magiaz. Etxeak ere *Iduzki* aldera begira erakitzen ziran, hemengo bizitokia=*domu* hango hobiko *tonban osteaz*. Aldi baten hilak etxapean *iduzkitzen* omen ziran, gero eleiza barruan, hilorak eta bateatu gabeko humeak, berriz, *itosurean*. *Utu=Aton* “*bizi sortzailearen*” *eredua*=sin-

boloa *oso*=*total*=*duztiz* maitatua=*dôd(h)* izan da gure artean, “gaur kontsola nozu, eguzki, bihar *etorri* zakidaz, kontsola naitean” bezelako *otoitzak* dinoenez. *Deiak*, (*h*)*ei-tak*, *deithorak* eta *uxingak* *Uturi* egin-otoitzalakoak izan zitezken, *Uturen* *edukoak* behenipehin.

Hori dela-eta, ausaz, norbaitek eskaldunak *Aitonen* seme/*Aitoren* seme edo *Iduzki*-seme-alabak *aitatzea* ez zan horren *txundigarri*, munduan beste herri askok ere, antxinatearen oroipenez, beste hainbeste *aitortzen* dutelarik.

Adu/adur, *Idittu/Iditxu*: *adu*=*hado*=*zoria*, *adur*, *betadur*=“betargiez *tutulikatze*ko indarra” eta *Iddituak*, *iduzkia* *iduzkituen* orduko laino gorri *izugarriek*, *suzko* *zezenez*=“toros de fuego” plazan antzeztuak. *Uddua-ah(s)*=*idia* zan *Uturen* *adorea* adierazten zuen maskota, eta *Uturen* sartu-urteneko *zuloetan*, *Tutozulo* bezalakoetan zaindari zena. *Uturen* zaindariok *izugarri* ematen ditu *Gilgamesek*, begituaz bakarrik bat hil-zorian jar-adinekoak. *Utukku/udug* izenez ere *aitatzen* ditu sumeriar jakinduriak, *uduki/eduki*, egitura bereko *Uturen* eta haren babespeko jagoleok, bestelako *Anunna*kuak edo gure *ttotoaren* kutun/gutun *tukutsuak*.

Toka: *Ttotozentzat* *ato* da anaia nagusia, harekin *toka* jardungo du, *oto*=*tío* da, *atta/aitaren* anaiea eta *suin*, *tto*, *ttotto* ere ba da ereduaz, *Aitoren* semeak, hain zuzen. An amatar antze=modelo den bezala, *Utu* *aitatiar* *edua* da; no ta to.

Udal/udaletxe, *utor*>*usu(l)*=*oitura*, *deitu*, *deithatu*, *jus(l)*=*ttutten/zuzen* *juskatzea*, *ots*, norbait *jus* gabe *uztea* da, egiturak ere antxinako gizartearen erakunde *usmoak* dira.

Sugaar=*Sugoi* *sorkariek* *su/suga* bezala aurkartzen dira egituraz, nahiz *tximist* eta beste *distirekin* berdintzen diren. *Tximistaren* zirkun-zarkutik hala deitzea ere baditeke, *Sugarzulo* tokia ere ba dago *Balzolan*. Bizkaiako kunti *Zuria* *Sugoigandik* *Marik* *sortua* *aitatzen* duen ipuina arratzberako

lokametsa dirudi. Sinboloek, argiak ez direnean, gizabidea arteztu beharrean, ondatu egiten bai-dute.

Euskararen egituretatik nahiko argi dager *Utu edua*, *Ra* eredu baino, lehenagoa dela. Biak ere esparru beretsuko arketipo direlarik. *Utu* *üsuago* agertzen da sendian eta hilerian eta jeinuen *sorketan* ez motelago. *Uturi* zegokion (*h*)*auzu* dena *auzian* ebatzea eta, ausaz, *jus(l)* ere hortik datorke.

Eten/eden: *Edenak* bizia *etenarazten* du, baina *eden* ortzi-erittoa ere bada. *Etemna(s)* da, hain zuzen, ortzi gabekoaren arima erratua, eta *etemu(s)* sabelean erasotzen duen deabruzko jeinua, sumeriar eta akadiarren siniskeran arabera.

4.3. Euskal etnografia RA arketipoaren arabera

Oronzaro: *Oronzaroz* antxina baten *Ra* jainkoaren (*h*)*irugarren* *ernaldiko* (*H*)*orus* (*h*)*aurraren*=*rorro*, *ertaroa*=*ortus(l)* ospatzen zan. *Horusek* *iruzki* *ori/orailaren*=*aureu(l)* jaiotza adierazten du “*Erkingu-ertzeko* *Horus*=*Horus* del *Horizonte*”. Eleizak Kristo Jainko Semearen Jaiotza ospatzeko *eredua* bertan egina ikusten du. Bestalde mitoen giza ametsak Kristogan betetzen direlako dago Eleizako Liturgian. Kristo da, beraz, askatasun “goiz eguzkia”. “¡O *Oriens!*” deitzen dio jaiotzear den Kristori, beragan dakus ilunpetan dagozan herrien argitzaille. Hori dela-ta, *Orontzaro* jaiaren egitura zaharra, aldeak alde, Kristori ere egotsi zezaioken.

Iruzki Saindua: “O *Iruzki* Saindua, eman zahuzu biziko eta hileko *argia*” dino J. M^a Satrustegik atsoen altxorretik Zudairen jasotako *erregu* batek. *Arratzaldean* (*h*)*eriotzera* doan *iruzkiaren* *erruki/urrikal* sentitzen da: “adios, *Iruzki* gaxo”=*errukarri*. *Iruzki-eredua* herriak *orzargitik* *arratzera*, *ots*, jaiotzetik *heriotzera* bizi zuen herriak izan zezaken izadiko sinboloekin halako *harremanik*.

Erio=*Heriotz*: Izen egitura hau *Eros(g)*, *heros(g)*, *eroi*, *erraldoi*,

ero, erogo, eroso, erori, eri, ortzi, eroiu, erosta eta “Amorio/Erio”=“Eros/Zanathos(g)” filosofiakin egokitzen da. *Eros/Erio*, beraz, gizakiaren zoria den bestekoa: *erosi* egiten zaitu eta *erori*az, *eregi* eta *ertu*, *eregin* eta *erkin*, *arintu* eta *ortzi*, *Ra*=*Horus* *ereduak* egunero bere zorian *erakusten* duen *eran*. *Hortu* Santuan (*h*)*arrigizona* edo *irargia* hobiaren buruan, *iruzkiaren irudia* da. *Zendua*, *harrizko irudian harritu*=*liluratu*, *Osiris* jainkoari gomendatzen zaio, *haren magia-arteziak erosi* dezan. Nahiko zan *harrigizonari* kurtzea ezartea *Osirisen* magia Kristoren graziaz truka ahal izateko. *Raren* barkak *iragoan* (*h*)*arrapa* eta *aire*ra noiz *arintuko* itxaroten zan, “eta *horrela airean erasoak*=*harrapatuak*=*rapiemur(l)* izango gara”, Paulok (Tes 4, 17) Kristogan kristauen bizkundera aipatzen duen bezala.

Hortu Santua: *Oru*+*tu*, *Horusi* eskeini *oru*=solar da, hitzaren egiturari ezeze, mitoaren muiari bagagozkio. *Hortik* hilerriari “*Hortu santua*” deitzea (*h*)*ur* dago eta *Iruzki Sainduaz*=*Done Santore* sagaratzeaz batera datoz. *Andre-hortua* gelditzen zan bataiatu gabeko *aurren ortzitzekoa*.

Ur goiena, ur barrena: *Urdiaingo Urteberriko Uraren* errittoa da. Antxinatean eskatzen zena bera eskatzen du eresiak: “*Ur goiena, ur barrena*”/Urte berri egun ona/Etxe honetan sar dedila/ Pakearekin osasuna/Urarekin ondasuna”. *Erritoren* bestelako ahozko *erregu-eresiak* ere ba dagoz, baina denak jarraitzen dute *aurreko eredu*a: “*Ur goiena, ur barrena*”. *Ur* aipamen honetan hako (Has 1,7) goiko ta beheko *uren* banantze-aipamena somatzea burubidezkoa da *hur*ean, baina Sortzalde *Hurbileko uraren* erritoeekin zubi egitea *Thalamos* *Labandibar* eta *J. M^a Satrustegi* ikerleen zuhurtzia izan da. *Urte*=*uretza*=*urteera*=*urtea* hitzaren korapiloak berak ere, *Urteberri* ezeze, “*Ur* berriak” ere esan nahi dituela, ots, *urte* berria jorituko duten *ur* berriak eskatzen dira, *ur* zaharrak

urtikiz. *Elizaren* aldetik ez legoken *errito* udigorik, *Kristoren* bataiotik *hara*, *uren* sinbolo *aratzgarri* eta *ernalgarria* berea egin duenetik.

Errensuge/Ersuge: Nola deitu zezakion bestela *Ra* eroiaren sugeari, *Ra* jainkoak *artesi*az gainditzen zuen *Apophis* apotzarrari? *Erensugea* ere deitzen da. *Irainsubia* *Raren* genitiboa aipatzen du, *irain* edukiaren *arabera*. *Apophisek argintxioz* eta *arratzean arriskuan*=*riesgo* jartzen zuen *Raren* untzia, berarekin batera izadiko *eredua*=*orden irauli-irrikaz*. *Joanen* Apokalipsiak *irudi* hau darabil jaiotzeaz dagoen *Erregearen aurka* jarki nahi duen *ersugea* salatzean (Ap 7). *Mikel Enangerua*=*Arcángel*, *Jainko-herriaren* jagole denez (Dan 7) *Aralarreko* bakardadean *Teodosio* jauna *eraso* nahi duen lurpeko *Ersugea* azpiratzen du. Ez du, halare ezpataz *erasoten*, kurutzearen *eraginaz* baino, beraz, mito zaharra, ain egoki ere, kristautzen delarik.

Arao/birao, erregu/erresuak: Egipton otoitzak=*oratione(l)* magiaz ere laguntzen ziran *araoak* on egiteko ziran, *biraoak*, *madarikatzeko*. “*Gauza* bat da *erregua* eta bestea *erresua*” esan ohi da. *Eregua* jainkoa txarmatzeko eta *artez*=*artesi*az, beraz *arin*, *erregua* *artetsi* ahal izateko da. *Hortarako* *horoskopoak* eta *irradakoak*, *biribilketa*, *kalejira* zerbait eta *norbaiten* inguru=*rededor* haren amore *ardiesteko*. *Irradakoak* *Ra* *iruzkiaren* birak antzetzten ditu. *Hagatik* *Osiris* jainkoak ere inpernuko etsaigoaren *ardaila* bere *ardatzean* lotzen zuan, *Ra* *iruzkiari* *erasorik* egin ez zezaioten. *Arriskutsua* zan, behin *arratzeraz* gero, *etxeari* *hiru bira* ematea, *deabruren* batek (*h*)*arrapa* zezaken halakoa ezustean.

Arbola: *Arbola*=*arbore(l)* eta euretan *arte*, *aretz*=*roble*, eta hebraierazko *erez*, *armon*, *araba*, etab. jakinduriaren ezauzarri dira (Has 2,9.17), *zuhaitzok eroriarren* ere, *errotik* kimu berriak sortzeko eta *bizirik irauteko* ahalmena duela-

ko (Job 14,7), *herri-nortasun* eta *iraupenaren* kerizpea duela-ko. Egipto-herrian *uri/iri* bakoitzak bere *arbola* sakratua zeukan. Israelek ere, *herri-batzarrak* eta *erabagiak* *arbola* pean *hartzen* zituan (Ep 4,5), Mambreko *artearen* azpian Yahwek Abrahami “zure jatorriari emango diot lur hau” (Has 12,6) agindu zion. *Artzeniegako Artea*, edo Gernikako *Aretxa* beste (*h*)aritz edo *arte* askoren *eredu* dira Euskal *Herrian*. *Herria* batzartu, *araudia* eman, *herrigintza* antolatzeko *ardura* eta egitura Sorkalde *Hurbiletik* etorri zaigu nonbait Euskal Herrira ere.

4.4. Euskal etnografia ILU arketipoaren arabera

Olentzaro=*Nöel*: Gainerako jainko arketipoak bezala *Iluk* ere bere *aldia* agertzen du. *Elohim(h)*="jainkoen jainko", gurentasuneko ZEREN kasoan dago Israelen, *olim(l)*=anbiola ere bateratsu datoz antxinatasuna adierazten. *Legezkoa* zan, *alegia*, hasierako *aldiak lau* jainko-leinu *alaenekin* *elekatzea*=*legere(l)*. Eta “*aldiak heldu* zirenean...”, ain zuzen, *lauretan* atzena den *laiara Olentzaro/Olentzero heldu* zaigu Jesusen *Jaiotzaz lokarria* egitera. “Aditu duanian, Jesus jaio dela...” *Ole! Iluri* egindako behingozko otoia da, (*h*)el! bezala, eta artean *oleriak* izatea eta *aipatzea* ere berezkoa du.

Lotazil, hitz hau “Abendua” adierazteko erabilia izan da, ots, neguko Eguberria=solsticio. Orduantxe ospatzen zan Horus aurraren *jaiotza* ere eta Horus *loto lorearen ziletik* *jaioten* omen zan, *harrigarria* ezeze, *liluragarria* bada ere. *Lotoak* urpekoa du ama-ahiena eta ur gainekoa *lorea*, ahienetik *lorera*, zila bezalako *lokarriak* *lotzen* du. Ur barre-nak amatar urak dira, noski. *Lotoa latx* eta *laku lingirda-tsuetan* ematen da, *Iluren lekuetarikoak*, *alegia*. *Lilutu(s)* ezeze, *liluratu* dago Horusen *jaiotza* eta *Lotazil lilurapen* hatako *ele=logos(g)* bat da.

Laratz=llar=lares(l), *Larunbata*: *Laratzak* beheko sua hesten eta babesten du. Hatarako erritoan, etxekandreak *laratza* jotzen du, sua autsaz estaltzeko darabilen palaz. *Laratzean* *elorrria* ipinten zan *kebidea* *laminen liluratik* edo *ilungien* erasotik *largatzeko=librar*. Erromatarrak azkenean *legeztatu* egin zuten *Laratz* jainkoen="dii *lares*" *lebia*, errepublikan *legetik* kanpo utzi zutenarren. Herria txarmatzearen, enperioak erligio herrikoiak artesiaz onartu egin zituan. Jainko-*ok* bere eguna izan zuten *Larunbatean*, ots, *Larium(l)+ baitan*, Yahwek *Sabbat/Sabbatum(l)* eguna duen bezala. “*Larium* baita” = “*Laratz*en baita” = bet(u) baserriko temploa adierazteko. *Laratz* > El+Ra+She *ereduak* *hartz*en ditu *Larunbateko* baitan, zenbat eta jainko “me” gehiago, *ahal larri-agoa*. *Laratzak* etxean *lekuko* ziran: “*laratzak* ezagutuko nor nolakoa den”, “*laratza* bezain segur”, “por estos *lares*” esakerek dinoen bezala, *Laratzekatik* zin egiten zan.

Lamina=lamia: *Iluren latx*, *laku* eta *lezeetan ilalamiak/ilamiak/lamiak* egoten ei ziran, erdi neska, erdi arrain ziren sorkariak, tokizen askok *zihurtatzen* dutenez: *Laminoria*, *Lamiako*, *Laminarrieta*, *Laimizulo*, *Lamindano*, etab. Josketan-eta egiteko *alkartzen* omen ziran eta gaztelu, zubi eta beste ardurazko erainkintzan *gizakiei laguntzen* omen zien. *Lajamu* eta *Lamasu* ziran sortu zen *lehen* izakien bikotea, *Enuma elishen* irakurten denez. Itxasoko ur gazi eta erre-kako ur gozoen batzean, nasan, sortuak izan ei ziran. Euren zeregina, tenploak eta jauregiak zaintzea. Sumer-Akadia eta Babiloniako mitoen errepika dirudi *laminen alegia* ere.

Iletargi/ilargi=luna: Batzuren ustez, *iletargia* mendarteetan sartzan omen da, eguzkia=*elios(g)* ez bezala. *Iletargiak* bera gutxietsi zuen gizon bat baitu omen dauka, gizonak ote-sorta daroa bizkarrean. *Ilargi* amandrea, Nana(s) eta Sin(a) bezala jainkosa denez, andreen eskubide *alde* dagoke. Beste

jainko nausiek zerua eta eguzkia dauzkate euren arpegitzat. *Iluk iletargia=luna*, argizagiaren arpegi *aldakorra*, hartzea itxurga ere ba da *aldean*. *Iletargi* egiturak *ileko* argia dino, ez *hiletakoa*. Euskaran, nahiz “erio/eriotz” ereduia izan zaharharragoa, *il/hil/hilotz* nagusitu da azkenean.

Eriotza beti ere jainko arketipoez esan da, gizakiei dagokienez: morir, touer(f), erio, (*h*)il=*laginar*. Abereen heriotza, piztiena berere, galdu, akabatu, kali Ka ereduez esaten da.

4.5. Euskal etnografia KA arketipoaren arabera

Gizakia bere ganoraz mintza ahal izateko, bere gizatasuna jartzen du *kanontzat*. Horrela Iduzki/Iruzki jainko zena *Eki/Ekain*, *Eguzki* egin da, *eguna* eta *gaua*, *gaurko garaia* gorde eta bere *gisako egia* adieraz dezan. Beraz *Eguberri* edo *Gabon* deitu ziteken Jainko *gizatuaren* mezua zekarren *hako* Ononzaro berria. *Igaro* zan, beraz, *Gentiltzaroa*, *gizakiaren ganorako*, *geure gisako* Jainkoa, *Kixmi*=Kristo=*gudu(s)*=*gantzutu*=*gaizkatzailea* jaio delako. *Kixmi* eta *Kristo* egiturek giza arketipo berekoak dira; *gantzutu*, *sagaratu*, adierazi nahi du; *gudu* da ausaz, *gudari* hitzaren *guraso*. *Gudu*=*guerra*=jarkipena, eta horretarako *gudaria gantzuz* eta *krisma(g)*-olioz *gantzutzen* zan.

Gabon beste *gauetatik* bereizten da, Anuren *gaua* bailitzan. *Gentiltzaroak* ba zituan *Gauoko*, *Gauargi* zeritsen *geinuak gautiarrak*, *agian*, *hako gentilaren gisa*, izarren *gidaritz* galdetzen zutenak. *Gizaotso* eta *Gaizkin* ere eurotarikoak izango ziran, erdi *gizaki*, erdi *geinu*, nonbait. *Aker*=*cabrón* ere erdi abere, erdi *deabru agertzen* zan sorginen batzarrean. *Kutun*=*gutun*=*amuleto*: *Magia-indarra* zeukan ume txikiei *idunetik ezarten zitzaien kutunak*. Indar hori azal dezaken *jagolea utukku/udug(s)* sumeriarra izan ditek: “bere ondoan *udug geinu* ona ipini zuan *gordele*=*guardian*” dino sumeriar

jakinduriak. *Kutunak* tukuz egiten *ttottoengan* *tutareak* *atzamarrean* egiten duen *lana*. Umeen azkeneko *gutunak* San Juanen Ebangelio hasiera zeukaten tolostu barruan: “In principio erat Deus eta Deus erat Verbum...” irakur zezaken=Hasieran ba zan Jainkoa eta Jainkoa Berbea zan”.

“*Gar deo*” jainkori eskeini harriak *agertzen* dira *Akitania* eta *Ainamendi* eremuan, *Garmendi/Garamendi* bezalako *santutegiak* lekuko. *Girra(a)*, suaren jainkoa zan *Akadian*, ona eta erabat *ikaragarria* zan *egitan*. Indar *garbitzaile gisa* deitua *araoetan*, *gaitzetik gerizatzeko*, *alegia*. Sua, *gar* bizi denean, *sugarra*, *kaltegarri* izan daiteke. *Hagatik* euskal jakinduriako atsotitza: “Sua eta ura *gerritik* berakoa”. Sua *ikuiluko* izurri eta *gaisoak* *garbitzeko* erabilia izan da *gure* artean.

Ugasaba, *guraso*: *Ugazaba/ugazabandre*=*kyrios/kyriotisa(g)*, *ugazaita/ugazama*, *guraso* egiturak arketipo berdina dute aurizki. *Gugal(a)* edo “jainkoen *landaretza* *ugalatzen* duena” dino *Enuma elish* poemak, *Marduk* jainkoaz.

Ugaldu=*ugaritu*, *ugolde*, *egiturek* ur/*udda* dute nonbait aurizki. *Ama-ugatzaren eginkizuna* ere *halakoxea* da *esnez*=*galakto(g)* umea *ugaltatzen* duenean. Umeak *haztea*, *ostera*, *guraso* bien arazoa da. *Guraso* < *curatu(l)* *egituratik* dator. Ba zan *Kura* jainkoa *Sirian*, *kurion/curio* *gizarte-ardura* *Gre-zian* eta *Erroman*. Hortik sortu da *cura* > *gura*=*querer*=*ca-riño*, *guraria*=*querencia* eta *curitar* > *cuidar*=*gorde*. *Iku* aditzetik *kusu*=*kuxuina*=*cousin(f)*.

Okuilu/Ikuilu=*korta*: *Eraikintzetan* *oikou(g)* *grekoak* dinona euskarak “*etxe*” dino eta *erromantzeak*, eredu biak *aturik*, *casa*. Hala ere, *abereentzako* *erainkintzak* *cabaña*=*corte*=*korta*=*ikuilu* eredu *bakarrekoak* dira. *Berdin* *etxeko alderdi* *batzuk*: *gela*=*cuarto*, *cocina*, *kadira*, *kuma*=*cuna*, *etab.*, *ontzietan*: *kaiku*, *cazo*, *cuchara*, *koilare*=*cochleare(l)*, *kopor*=*copa*, *khotxe*=*cuenco*, *koira*, *katilu*=*catullu(l)*, *gudalet*, *gani-*

bet=cuchillo, cubierto, etab., kaixa=kutxa=caja bezala. Ogasunetan=ekonomia(g)=economía: gari, garagar, ogi, koipe=grasa=ganz=gurin, gaztae=casseu(l)=queso, etab. eta industriagintzan: goru, kotxea, kotoi=coats(ca)=coton, kota, gal-tzak=calzas, gurpil, golde, karramarro, gabi, kare=cal, egur, ikatz=carbón, eta merkaktuan: giau=cultivar, gorde=guardar, kit/kitu, kario, garesti=caro, etab.

Gurdi=carro: Asmakizunetan aurrerapenik handienetarikoa *gurdia* izan zan. Ra/Horus iruskia arkan/barkan eta organ/*curru(l)=gurdian* ibiltzen za, Shamash=*Eguzkia* bezala. Shamashek *gurdia* eta zamariak zerabiltzan (2Er 23,11) aldi bateko Judako erregeen ustetan. Orgato > *gurdi* arketipoen itzuliaz. *Galarren=galeria, ugoaldea, galar:* Nergal=Arragal=Uggu, Addarren lagunek, sumeriako *ugoaldea gertatu* zuten. *Galarren/Nergal* itzulia da, *galar=ikatz/Arragal* bezala. Addar/Arragal/Negar inpernuko "ilintiak" eta addaiarrak bai-dira.

4.6. Euskal etnografia BA arketipoaren arabera

Sumeria eta Egiptoko mitoak Euskal Herrian ere errepika izan dute. "Ene *ba!*"=Ene *bada!* bezalako esakerak salatzen dute otoz-otoan. Sumeriatiko kutsua funtsezkoagoa da, hala ere, Egiptotikoa, magiaz beteagoa.

Basajaun, izenak dinoenez, basoaren jabe eta basoaren babesle zan. Basoa berez, edo jakinduria zaharraren arauz, jainkoen sorkaria denez, haren zaindaria ere jainko-izakera eta ahalen partekide izango zan. *Basajaun batzuetan* lagun abegikor eta *bestetan* etsai *beldurgarri* omen zan. "Don *Bildur*"="Bildur Jaunaren" mitoa ere ezaguna izan zan Errioxan. Mitook elkarrenak izatea ere ba diteke. *Basajaunek* osteria *ba* zuen Sumerian *Humbaba* izeneko *beste basajaun bat*. Bata eta *bestea bateratsu* datoz funtsean, nahiz arketipok atzekoz aurrera josiak euki *Humbabak, arazoa ere berdina* zuten.

Gilgames eta Enkiduk, *Humbabaren basoan* egurra egite-kotan, jabea erailtea erabagi zuten. "Humbaba jainkoa zen, argia sortu aurretik (...) Haren *begirakunea bildugarria* zan" (...) "Behin borrokaraz gero, haren jainko-lama desagertu egingo da" dino *Gilgamesen poemak*. *Humbaba* hil zutenean haren *basoko* izaien eta eretzen urruma entzun zan lau leguan. *Beste batzuren* ustez, *Humbabaren burruka* ez omen da eten oraindino. Niniven kontatzen zutenez, *Humbabak* jainkoaren zigorra agindu omen zien *bere* arerioei, hala gertatu *bai*-zen.

Humbabak eta *Basajaunek*, *bestalde*, ozenean *abotz bildur-garria* zuten *biek* ere, ile luzea eta oin bata, zuhaitzarena bezala, *borobilki* eratua. Sumerian Gilgamesek eta Enkiduk egina egundaino egin da Irati aldean, suhaitzak eraso eta *ibain behe*ra eraman, ots, basoa murriztu. Egoki zen *Basajaun bezelako* geinuren *batek* Iratiko *basoen* zaindaritzan *bularra* ematea. *Basajaunaren* ondoan, haren emazte *Basandere* ere *aipatua* izan da gure artean. Gizakia, ekologista izan ez-palitz, ez zuan halako mitorik asmatuko. Ba daki, nonbait, izadia ahienatuaz batera, kosmoko jakinduria ere desagertzeko arriskua legokena eta gizarteko jakinduria hutsak gizakia erradura eramango lukena.

Basakoipetsu: Horrela ere *ba* deritso haratusteari, *baina* haratuste=carnaval euskaratua delarik, *basakoipetsu, basoan* egiten den jataldiak *ba* du lehenagoko erritoekin zerikusirik.

Apophis: Hala zeritson Egipton Errensugeari. Ra jainkoak Ureus izeneko sugeñoa zeraman bekokian *Apophis apotxar-raren* amarruak *begizkoz* salatu eta eraso zitzañ. Hagatik "egoki da Ureus onartzea eta *Apophisi* txu egitea" dino egitiar jakiteak. Gure umetzaroan ere ezaguna izan dugu *apo* edo suge hilaren ondotik igarotear txu egitea. *Apo/apotzar/apotxar* hitzak iraingarriak izan dira gure artean eta nekez a-

zal diteke iguin hori egitiar pentzakera kontuan izan ezik.

Begizkoa: *Begizkoa begirakun* gaiztoaz *batera* norbaiti harako edo *bestelako* kaltea egintea edo egin-nahia da. Egitiar esakerak dinonez: “Bizia kendu-asmo du bere begietan”. *Begia*=*udjat(e)* da egitieraz eta handik *udigo*=*odiu(l)* euskaraz eta latinez, gorrotoa begiradan ikusten bai-da eta haren magia ere erailgarriztat jotzen zan.

Patuak, pamerialak: *Patuak* > *Fatum/Fata(l)* > *Hados/as*. Euskal *Patu* geinua Erroman eta erromanzeetan agertzen dena *baino* urrunduago dirudi, haren sexoaz ez bai-da arduratzen eta aurrizki-arketipotik hurrago *bai*-dago. Haren aurretikoak, jainko ereduak, alegia, “Adu/Adur”ere ezagunak ditu. *Addu/(H)addad/Adar(a)* izenak agertzen dira Akadian, *Odoi/(H)odei* formen ereduak eta eginkizuneko dira. Izan ere, hodeiaren zartadak eta ezustekoak gaitzak Adu jainkoen edo *Patu* geinuen eragintzat hartzen ziran. *Pamerialak* zer ziren jakiteko, “*pamerialak* ditu” esakera egokia da. *Bizien begietan*, ilobenetan adibidez, aiton-amonen argiak eta *begirakunak* antzematea atsegina izan daiteke, lehen-goien lilura gogarazten dutelako. *Besterik* litzake zenduen arimak *bizien begietatik begiraka* ezeze, haren alboko lagun=compañia(ga) sumaketaren *begitantzinoa*.

Balbe=Birao: *Balbe*=Erio: Izen *biok* heriotzaren nortasuna adierazten dute. *Ilu/El/Allah* jainkoei *al/abal/(h)el/(h)il* indarrak egosten zaizkionez, haren bitarteko ezkorrena lur-rean *Balbeagan* ezagutzen dela dirudi. *Arao/Birao* ere berdintsu moldatzen dira. *Araoa* gaitzak uxarazteko otoitza da. Jainko-araura taxaturiko hitzak, berez du hatarako indar. Hagatik erritoetan otoitzak <otu+hitzak jainko bakoitzari adi dagoz ortzetik soinura. *Biraoa*, ordea, norbaiten kontrako erresua da. *Birao*-jeinua, *biraoa* ahozkatu orduko jabetzen omen da aurkakoaz. *Biraoak* ere araoaren indarraz,

ots, hitzari berez dagokion magia uztiatu nahi luke, hitzak egin eta desegiteko indarra bai-dauka, jainko arketipoez egin dagoenez gero. *Birao* geinuak magia horretaz uztiatuz, bide onetik *bira* egin edo *bihurritzen* du.

Abelgorri=Beigorri: Geinuok “Idittuen” lehengusuak dira eta haiei bezala iduzkiaren lezak eta kobak zaintzeko arazoaz amestuak, iduzkiak ezelako kalte edo *begirale* gabe zuluneak igaro ahal zitzen. Hizkuntza ereduak aldatuarren, mito zaharrak iraun egiten dute. “Gorri” izenlagunak, bestalde, “gori, *bildurgarri*” ere esan nahi du eta halakoak izan ohi dira, iduzkia sartu-urtenetan zero-ertz mendiak duten margo larri eta iragarkiak, “goiz gorri, arratz euri”, etab.

4.7. Euskal etnografia SHE arketipoaren arabera

Eskuarak She ereduari sor dio bere bereiztasunik handiena, bera izentatzean eta *eskual etxeari xeguna ezartean*. Gure mitoez edo hitz-erroez *eskuarari* galdetzean, mitoazterketa izan dugu gogotan, eta erantzun fidagarririk *etxaroten*=*spero(l)* dugu.

Aizkora=securi(l), zekor: *She* ereduak *hitzetan* eztabaidatuena *aizkora* da. Zenbait hizkuntzalarik *aitz+gora* aglutinatetik datorrelakoa aipatu dute. Norbaitek, hori dela-ta, “Harri Haroko hizkuntza” deitu zion *eskarari*. *Aizkorak* oinastarriaren aurkako magia *zeukan* antxina, ausaz, oinastarriak bezala, *aizkorak*, harriaren kontra joaz, txispak urtikatzen dituelako. Hagatik *aizkorea* borda aurrean ahoz gora *jartzen zan* oinastarria *jausiala* bertan moztu eta ler zezan. Ekaitzaren *haizeari* eta berere haren ostots eta oinastarriari *Ishkur(s)* deritso sumerieraz. Hodeiaren gainean lauoinkatzen zuen “*Zeruko Zekorra*” zan, jainko indarraren adigarria. *Ishkur* izan diteke *aixkora/aizkora=securi(l)=segur* egituren ezeze, *zekor* formaren aurretikoa. *Hitzaren* egiturak

ezeze, elkarren kontrako zioak lotzen ditu, *etxeari* halako *segurtasuna*=*zihurtasuna* emanaz. *Santutegietan Eskuriamendi*, *Azkorrimendi/Aizkorrimendi* dagerz.

Xaon/jaun, *Xainko/Jainko*: *She* ereduari ezker, Anu > *xaon/jaun* bihurtu da. Euskal *sendian* ere Anu/*sanu(l)*=*sano*, Iño > *seinu/sino*=*signu(l)*, *sinu(l)*=*seno*, *sin*, *zin*, *aña* > *señá*, *eñe* > *esne*, *sen/seny(ca)*, *sene(l)*, *nini/ñeñu* > *sein*, “*me/eme*” > *seme*, *sema(g)*=*señal*, *semeios(g)*=*semejante*, Ra > *zahar*, *Inko* > *Xainko/Jainko*. Anttu > *Shansho* > *zantzu/santu/santo*, Ada > *aizta*, Ba/aba(ara) *xabe/jabe*=*chef(f)*=*jefe*, *aizpa*, *abel* > *chaval/chavala*, *sabel*, *narea* > *senar*, *seniore/señor*. *She* jatorri-eredua atzizki dela, berriz, An > *antz*=*antzi*=*ansia*, *eme* > *emazte*, *atta/aita* > *aitaxe*, *ama* > *amaxe*, *anai* > *anaxe*, Euskararen aurreneko (*h*)*azkunde*-iraultza izan zan eta nonbait giza jakinduriaren garapen aldia Neolitosko mediterranean kulturaturan.

(*H*)*azkuntza*, *azaiera*: *Sendia*, bertaxutu ondoren, *seintxo*en *azaiera*=(*h*)*ezkera*=*hez*kuntza eta *eskola*=*sjole(g)* dator. *Hiztegiaren* berrikuntzak jainkoen mundua eta gizarteko arazoak bereizi nahi zituen. Gizakien hutsak ez zitzaien egotzi behar jainkoei, gizakia bere burutapen eta ekintzen erantzule izan behar zuen. Arketipoen pedagogia nausitzen zan: gizakiak gizakiez gizakiro gida eta gisa bailitzan. Harrezkero ino > *esan* da, *ñau* > *xan*, *beza/(h)ezi*, *bezatu/avezar* > (*h*)*ezitu* bereizten dira, *bere* > *beresi*=*separar*, *beresi*=*excoger*. Giza ahalmenak izentatzen dira: *sen*, *seny(ca)*, *sentsu*, *sensu(l)*, *zentzu*, *sentido*, haren *jarkerak*: *esane*ko, *zindo*, *zintzo*, *sen-sato*, haren *jeinhatzea*=*janaritzea* ikasten=estudiar, *sanoa*=*sana* izan zedin: *jan*=*jamar*, *jeinhatu*=*saginhatu(l)*=*sainar*. *Eskepean*-edo *eskola* antolatuta behar zan *seintxoek* *xakinduria/jakinduriaz*=*sabiduria* jantzi zitezten. *Jakinduariaren* *eskolak* *She*+*Ka* > *etxe*+*oikou(g)* eredu eta kultura biak bate-

ratsu ekitera dakar, (*h*)*asieratik* *Zikurat*, *Esagil* sumeriar eta *Saqqara*, *Gizah* egitiar *santutegiek* adierazi bezala.

Esku, *eskubide*: *esku/eski/sc/sch/x* egiturak agertzen dira *eskola*, *schola*, *skire(l)*=*xakin*, *noscere(l)*, *jakinduria sailean* eta *eskar*=*kharis(g)*, *sachara(l)*, *sacra*, *sekretu*=*segeretu* *jainkoegazko* erritoan. *Xainko* hitzak berak ere giza arketipo biok Ino eredu jainkotiarrekin batzen ditu. Erritoetako *eskarietan* *esku* biak jasotzen dira: *eskui/ezkerrak*. *Eskuak* zor dena *eskatzen* du, *ezkerrak* zor ez dena, *eskar/esker*=*kharis(g)* bezala *jainkoekandik* datorrena. Joniako antesterietan, *jainko*zko *eskontza* *segeretu* eta *sagaratuaren* ostean, *jendeak khotxe*=*choes(g)*=*esku-ontzi*=*escudilla* bana hartu eta edanera ematen zion. *Chous(l)* merkatuetako neurria zan, ustez hortik omen dator *jus(l)*=*esku/eskubide* erromatarra. *Juskatu*=*juzgar*=*judicare(l)* formek “*jus*” horren ukapena adierazten du, *ots*, *eskubidea* kentzen zaiola, beraz *jugu(l)*=*yugo*=*uztarpe zigor*ean=castigo zegoela bere *causa(l)*=*gauza*=*hauzia*, *eskanuan*=*escaño* *exeritzen* den *jujearen* erabagira. *Zinezko* aiterra eman behar da, hatarako *sino*=*signu(l)* *ezaguna*, *zeinu* berezia emango, *zintzo* eta *sinistagarria* den *jakiteko*. *Zintzoa askatu* egingo da, *jaregin* geldituko edo eta *saritu*. *Esku* ereduaren goraintzia *eskondu*, *ezkondu*=*casarse* egituretan gordetzen da *securu*, *segur*, *zihur*, *ezkuta*=*escudarse*, *eskutu*=*escudo*, *eskatu*, *escuchar*. *Eskondu*=*alcanzar* den beste da *ezkondu*=*casar*. Hortik *gaztelanizko* “*pedir la mano*” edo *casar/cazar* formen alde. Izan ere, egituraz *eskara/eskuerak* eta *gaztelaniak* ez dituzte ordena berean *jartzen* *Ka/She* giza ereduok. *Ezku*, *azkurriatu*, *azkortu*, *eskatimatu*=*esca-timar* arazoa *etxe*=*oikou(g)* > *esku/eska* edo *oikia*=*etxa* > *casa* taxutu *zirenetik* datorke, *Eskual Herrian* *etxe* ereduak *txit* *jaio* *jaurritzen* bai-zuen.

Azaga, *azantzile*: *Azaga*=*zaga* gizakiaren *azkenak*, “*azken*

orduak” adierazten dator. Sumeriar jakiteak dinonez: “Azag gaitzak, zelatan bere hegoak zabaltzen dituenak, itzal adinako bihurtu zuan”. *Asakku(s)* zeritson deabrua ere ba dager: “*Asakkuk* inguratu eta, eztralakoan, buruan erasoten du”.

Azantzile ere gaeko burukominen sortzaileetarikoa omen. *Shedu, xede: Shedu(a)*, aingeru jagoleak edo tenploen eta palazioen *etxezainak* ziran, Udug(s) *etxetuak/etxekotuak*, alegia. *Xede, xedatu, xedetsu* edukiak hor dute nonbait sorgua eginkizunetik hitzera. Ofizioz egonean *sede xedatu* datorke eta *zela zelatu* bezala.

Zarrapo/sarrapu: Sarrabu gaizkina ere ezagutua izan zan Sumerian. Akrostikoak dionez: “Jainkoak ez dio *Sarrabu* deabruari bidea eragozten”. Nondik datorke *zarrapo/sarrapu* hitza? Satan=deabrua *atzakol* handidun idurikatzen zan eta, beraz, *sarradak, sarrapuak, sarraskiak* egiteko gei...

Zezengorri: Abelgorri eta Idittuen errepika *She* ereduan. *Zekor* egituraz *esana* ere hurretik doakio.

